

tekarria
BARREN

Olentzeroren oparia
Elgoibarri



EXANKAKUA
BERRIKATARI ETA ZERRI ZU ELKARTEA



BARREN
TOKIKOM

ELGOIBAR - 1058. zenb. XXIV urtea - 2017-12-22

25 urte!

Zorionak, BARREN
eta herritarrok
Segi urteak betetzen.



ESKERRIK ASKO, DENOI!

Oraingoan ere, portatu zarete!

Zuei esker, ehunka opari zozkatuko ditugu Elgoibarko Izarraren tonbolan. Zuei esker, abenduaren 24a berezia izango da Elgoibarren, beste urte bat gehiagoz. Mila esker Elgoibar euskaldunago egiten jarraitzeko emandako bultzadagatik. Kalegoen Plazan ikusiko dugu elkar!

2. Estankoa / 40-15 Tennis Elkarte / AEK euskaltegia / Agirre sastreria / Agurtzane ileapaindegia / Ainhua fisioterapia / Alcorta Forging Group / Aldaz hortz klinika / Bacalaos Alkorta / Altzola Berazeta baserria / Amagoia gozokiak / Amaia, Marian eta Sara fruta dendak / Amaro eraikuntzak / Ametsa kafetegia / Anari / Anua errekifikatuak / Apraiz parafarmazia / Aranburu bitxi denda / Arauri / Arilan mekanizatu zentrua / Arkupe / Armueta harategia / Arriere De La Maison De Izaro / Azkue argazkiak / Barrenetxea Etxeberria botika / Beitia Arriola fisioterapia / Beitia Arriola hortz klinika / Belaustegi jatetxea / Beristain Logistika Banaketa / Beristain Mekanizatuak / Bitxibitxi / Bitxibizibitxi / BM Complet / Bolintxo / Casa Astigarraga kirolak / CD Elgoibar / Cristina García estetika eta Terapia Naturalak / Danele Sarrugarte / Dantzaneus / Darama bitxiak / Doña Mercedes / Ecenarro lentzeria / Ecolaundry / Egondo / Egur arte tailerra / EITB / Eizagirre / Elena ileapaindegia / El Gaucho / Elgoibarko Udala (Berdintasun Salla, Euskara Salla, Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Salla eta Kultura Salla) / Emilia Nogales / Ene Bada / Eroski Maala / Esther Ibarburen / Etxe-Tar / Etxekit / Etxepe / Evoka Shoes / Exclusivas Pelegrín / Fadek ileapaindegia / Farmalau / Fotero / G&M / Gabi jatetxea / Gaindu / Garate jantzi denda / Gloria okindegia / Go Bike / Gorostiza liburu denda / Grupo Unceta / Gure Esku Dago Elgoibar / Gure Esku Dago Mendaro / Hair's ileapaindegia / Haritz Euskal Dantzari Taldea / Hurbil informatika-Mr.Micro / Ibai-Ondo erretegia / Ibarrenea / Idama / Ikus optika / Imanol Agirretxe / Ipintza margoak / Iriondo altzariak / Iriondo kirolak / Irudi argazkiak / Isleder / Iturri

Elgoibarko Izarraren aldeko

TONBOLA

**Abenduak 24, 11:00etatik 14:00etara,
Kalegoen plazan**

**1.350 erregalu baino gehiago,
eta, amaieran,
telebista baten zozketa!**

Aingeru Goenaga / Milar Bire / Mintxeta Atletismo Taldea / Miren Guillo / Moma / Morkaiko Mendizale Elkarte / Munlet / Nalai oinetakoak / Napoka Iria / Nieves Maidagan / Noa estetika / Noa ileapaindegia / Nuvan / Oin Berri podologia zentroa / Ongi iturgintza / Patxi harategia / Pikumek / Pirritx, Porrotx eta Marimotots / Pitxintxu / Rural Kutxa / Sahatzu / Salento / San Roke kafetegia / Sinuöse / Soarte argazkiak / Su Ta Gar / Sugar / Suministros Evia / Swislan / Talleres Mecanicos J.Larrañaga / Tantaka taberna / TAZEBAEZ s.coop. / Txarriduna jatetxea / Txillarre eko denda / Txomin harategia / Udala Musika Banda / Usua / Uxue Alberdi / Uzuri / Vanesa Mateos / Viento Sur gastroteka / Xarlem Creations / Yudego / Zalao Amaiz / Ziarda / Zu+Ni / ...



ELGOIBARKO IZARRIA
Euskal Herriko Erakundeak

Elgoibarko Izarraren **TONBOLA**

Abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera, Kalegoen plazan taloak, txorizo egosiak, musika eta primerako giroa ziurtatuta. Olentzero eta Mari Domingi ere badatoz. Zatoz plazara, eta eman bultzada euskarari.



...eta opari
gehiago!

ZORIONAK 2018



Zorionak eta Ute Bona

Feliz Año Nuevo

Isom Natale e Felice Anno Nuovo

Frohe Weihnachten und ein Gutes Neues Jahr

圣诞快乐

Joyeux Noël

Bonne année

Merry Christmas and Happy New Year

Isom Natal e Bona Año Novo

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



GOKI ERREFORMAK S.L.

OBRAK ETA PROIEKTUAK



Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587
goki@gokierreformak.com



Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA
Tel.: 943 765 342 - Faxa: 943 765 216
bergara@gokierreformak.es



LTE.
Eraikinen ikuskaritza teknikoak



Energia-eraginkortasunaren
ziurtagiria

Fatxadak (Isolamendu termikoa) - Teilatuak - Bainugelak
Sukaldeak - Igogailuak - Gremioen koordinazioa

www.gokierreformak.net

**Gabon
Zoriontsuak!**

IÑAKI ODRIOZOLA

Elgoibar 1936 taldekoa



Argentina eta gu

depurazio, konfiskatze eta bortxazko lanak), denak ilegítimoak, ez dira inoiz indargabetuak izan. Inork ez du legez kontrakoak izan zirela baieztatu.

Are gehiago, boterea hartu zutenek euren antolakuntza ofizialaren kontroletik kanpo egin zuten guztia, eta guztia diot (bahiketak, hilketa, bortxaketak, kale umilazioak...), ez dira inoiz epaituak izan.

Argentinako diktadura iruditu izan zaigu beti odoltsuenetakoa. Eta askotan aipatu izan dugu han milaka desagertu egon zirela, eta astakeria izugarriak egin zituztela mugimendu sozial, sindikatuetako militante eta herritar ezkeriarren kontra.

Bada diktadura horrek zortzi urte iraun zuen, hemen jasan genuena baino askoz ere motzagoa izan zen, eta intentsitatez antzerako izanik ere, 30 mila desagertu daudela diote, eta ez dira gutxi.

Orain hiru aste, diktadura bukatu eta

35 urte geroago, Argentinako egungo zuzenbide estatuaren epaitegi batek 48 zigor ezarri ditu, 789 gizateriaren aurkako delituengatik: 26 pertsona, gehienak militarrik, bizi guztirako kartzelaratu dituzte, eta beste hemeretzi kartzela zigor txikiagoak ezarri dizkiete.

Euskal Herrian, ordea, hain eremu txikian, badira 10 mila desagertu, eta Espainian 130 mila dira gutxienez (ez da nik asmatua Garzon epaile famatuak egindako ikerketan jasotako datuak dira), eta hemen ez da egon erantzukizunik, inork ez ditu, orain arte, erantzuleak bilatu ere egin.

Hau horrela, egia, justizia eta erreparazioa eskatuz dabilzan elkarte eta hiritarrik poztu egin dira, benetan, pentsatuz, 80 urte igaro bada ere, lehen aldiz, frankismoaren ondorengoek "lotuta eta ondo lotuta" utzi zuten hori urratzen hasi dela. Ea egia den.

L

aurogei urte eta gero espainiar estatuko epaitegi batek, behingoz, Frankismoaren krimenen aurkako salaketa bat ikertzeko bidea eman du. Epaitegi hori ez da noski Espainiako Auzitegi Nazionala izan, baizik eta Bergarako epaitegia, eta salaketa Elgetako Udalak jarritakoa da, bertako biztanleen sufrikarioaren lekukotasunean oinarrituz.

Milaka eta milaka epaile izan dira Espainian azken 80 urteotan, baina 1936ko estatu kolpeak sorrarazi zuen estatu ilegítimoaren erabaki judizialak (atxiloketa, fusilamendu, kartzelaratzeko, tortura,

"Bergarako epaitegiak Frankismoaren krimenen aurkako salaketa bat ikertzeko bidea eman du"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkaldun Erakundearen Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edune Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirre-azaldegia **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► GIDA KOMERTZIALA 2018

Aurten ere apustu garrantzitsua egin du Elgoibarko Izarrak elkartearen autofinantzaketa indartzeko, eta iazko bi-detik, gida komertziala prestatu dugu. Elgoibarko eta Mendaroko zerbitzuen gida izango da. Bi herriotako enpresa, merkataritza, ostalaritza eta erakunde guztien telefono eta helbideak aurkituko dituzue gidan, argi eta modu errazean. Gure partetik eskerrak eman nahi dizkiegu gidan publizitatea egitea erabaki duten bezero guztiei, eta baita ere, bigarren urtez gudan sinistu eta babesa eman diguten Elgoibarko eta Mendaroko Udalei. Zuen laguntzarik gabe produktu hau kaleratzea ez litzateke posible izango.

2018ko gida komertziala prest daukagu dagoeneko, eta Eguberrietako oporren ostean jasoko duzue gida. Elgoibarko eta Mendaroko etxe guztietan banatuko dugu, denda eta komertzioetan eta baita enpresetan ere. Edozein arrazoi dela gida jasotzen ez baduzu, BARRENe egoitzan edo Elgoibarko Izarraren lokalean eskuratu ahal izango duzu.

Elgoibarko Izarra

► HITZEN ERKINA

Lehenagoan, ez dakit zenbat aldiz ikusi zintudan harro, dotore pasarela-aren gainean; edo hobeto esanda, entzun, eta harrিতa gelditu nintzen. Eta

ez dakit zergatik. Agian, egun seinalatu zelako, eta zu horretaz baliatu zinelako horrenbeste denbora, askoren ahotan, giltzapetuta eman ostean, zeure burua biluzteko? Baliteke. Halarik ere, nahikoa ausarta izan behar hitzez gositutako hamalau mila lagunen aurrean, horrenbeste bider plazara jaigitzeko. Ez dakit gainontzekoek, baina nik sekulako lotsa sentitu nuen horrelako testuinguru batean zu honela ikustean, eta zure berririk ez izatean. Inoiz burutik pasatu zitzaidan ondokorari galdetzea, baina hain nintzen lotsa, saioa bukatu arte itxaroten izan bainintzen etxera joateko, eta eleen presondegian zure arrastoa topatzeko. Nahiz eta jakin euskaldun asko, hitzetan, erkina garen, orain badakit nor zaren, eta orain badakit, edozein lekutan zaudela ere, inoiz ez zaitudala ahaztuko, eta beti egongo zarela burumuinaren bazterren batean, entzundako saioa bezala.

Juan Luis Mugertza

► OLENTZERO WHATSAPPEAN?

Aurtengo Eguberrietan Olentzero sare sozialetara eraman du EITBk. Batbateko mezularitza zerbitzurako programa bat garatu du. Programa informatiko honek jasotako mezuak irakurri eta interpretatu egiten ditu, eta modu automatikoan erantzunak sortu, Olentzero izango balitz bezala. Euska-

raz eta euskalkiak kontuan hartuz ematen ditu erantzunak eta, baita gaztelaniaz ere, elkarrizketaren arabera. Nonbait EITBk bultzatutako ekimen honen helburua da etxeko txikiek Olentzerorekin hitz egitea, abenduaren 24ra itxaron gabe.

Baina non geratu da haurrek Olentzerorekiko duten miresmen edo beldur misteriosu hori? Non geratzen dira Olentzerori buruz egiten dizkiguten galdera berezi horiek? "Ama, aita, zenbat egun falta dira Olentzero etxera etortzeko? Zergatik doa aurpegi zikikinarekin? Zergatik bizi da mendian? Ikatza ekarriko al digu?..."

Orain horixe, hotz-hotzean kontaktua lortu eta berarekin zuzenean hitz egin dezakezula esaten digute. Eta gutuna idaztearen xarma non geratzen da? Izan gaitezen sozialak eta ez sozialAPPeak! Abenduaren 24an Elgoibarren eta Mendaron ikusiko dugu Olentzero! Gora Olentzero bizirik!

Z. A.

► GABONETAN ERE PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

Aupa! Elgoibarko SAREk hainbat ekintza antolatu ditu 2017ko Gabon hauetarako. Olentzeroz gain, hil bukatu erako elkarretatzea Kalegoien plazan egingo dugu *Ibon etxera*. *Preso gaixoak etxera* lelopean, iluntzeko 20:00etan. Horrez gain, Gabon



BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

Hego Euskal Herria eta Espainia: **29€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek **23€**)
Ipar Euskal Herria eta Europa: **42€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek: **32€**)
Europatik kanpo: **54€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek: **43€**)

Harremanetarako: **943 744 112** edo barren@elgoibarkoizarra.eus

Zahar feria egunean giza-katea egingo dugu herriko kaleetan zehar, 74 urte dituen Sebas Etxaniz elgoibartarra libre utzi dezaten eskatzeko, eguerdiko 13:00etan Kalebarren plazatik hasita. Egun berean, urtero antolatzen den elkartasunezko talo txosnan biltzen den dirua SAREren lana laguntzeko izango da, batez ere, urtarrilaren 13rako deituta dagoen manifestazio nazionalen ahalik eta jende gehienak parte har dezan, autobusetako txartelen prezioak merketzeko. Hauek egiteko zuen laguntza behar dugu ezinbestean. Zenbat eta partaide gehiago, erosoago ibiliko gara denok. Animatu!

Elgoibarko SARE

► OHARRA

Iritsi dira Eguberrietako oporrak BARRENERA. Datorren astean erredakzioa itxita egongo da, nahiz eta han eta hemen ibiliko garen argazki kamera hartuta Eguberrietako ekintza desberdinetan argazkiak ateratzen. Hurrengo alea urtarrilaren 5ean jasoko duzue.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatu egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitz argitaratuko.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan dotore
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizar1@yahoo.com
615 715 404

ECO EIBAR 4D
imagen prenatal
R.P.S. 44340878y
688 800 800
Isasi kalea, 17 - EIBAR
4D ekografietan espezialistak

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Terriblo Eteabarria, 22
Eibar
Tel. 943 106 020
Mug. 677 551 850

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

RPS 271/12
ainhoa
ikioterapia
Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

aldaz
horts klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&mas
Fisioterapia aurreratu eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 943 628
www.fisio-mas.com
RPS 132/18

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

leku eder
horts klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Ehun saltokitik gora jarriko dituzte Gabon Zahar Ferian



A benduaren 30ean egingo dute aurtengo Gabon Zahar Feria, eta antolatzaileek atzo aurkeztu zuten urteko azken feriarako egitaraua. Ane Beitia Elgoibarko alkateak, Andrea Arriola Elgoibarko Udaleko Kultura zinegotziak, Joseba Arrizabalaga landa arloko zinegotzi arduradunak, Juan Jose Galdos Kalamua Elkarteko ordezkariak eta Blanka Salegi Kulturako udal-teknikariak eskaini zuten prentsurrekoa, Gabon Zahar Feriaren nondik norakoak azaltzeko.

Guztira, ehun saltokitik gora jarriko dituzte bertako produktuak erakutsi eta saltzeko. Denetariko produktuak dastatu eta erosteko aukera egongo da aurten ere: ogia, gazta, eztia, barazkiak... 9:00etatik 14:30era arte egongo dira saltokiak zabalik, Kalegoen plazan, Lekuederren eta Aita Agirre plazan. Abereek eta nekazaritzako erremintek ere izango dute euren lekua azokan. Musika giroa Baltzola Anaiak trikitilariak eta Elgoibarko Kale Kantariak jarriko dute.

Baina produktuak dastatu eta saltzeaz gain, lehiaketak ere egingo dira. Batetik, barazki lehiaketa izango da, eta bestetik, azken urteotan oihartzun handia hartu duen gazta lehiaketa. 2017ko gaztarik onena aukeratuko dute aurten ere. 11 gaztagilek hartuko dute parte, urtean zehar beste gazta lehiaketaren bat irabazi duten 11 gaztagileak, hain zuzen. Gazta lehiaketak irauten duen bitartean, Mañukorta, Meabebasterretxea eta Ziarda arituko dira bertsotan.

ArTalde, Maalan, eta Ikastolako txosna, Kalebarrenen

laz sortu zuten Elgoibarko artisauek ArTalde taldea, eta talde moduan estreinakoz irten ziren kalera iazko Gabon Zahar Ferian. Aurten ere Maalan jarriko dituzte postuak 10:00etatik 14:30era. Eskuz eginiko hainbat produktu jarriko dituzte salgai, besteak beste, bitxiak, xaboiak, oihalezko lanak edota egurrezko tailak egongo dira aukeran.

Elgoibar Ikastolak, bestalde, Kalebarren plazan jarriko du txosna, eta Eusko Label markako harategien laguntzarekin (Armueta eta Ziarda), labeldun sahieski pintxoak eskainiko dituzte.

Era berean, Gure Esku Dago taldekoek talo postua jarriko dute Lorito parean.

Egunez egongo da non aukeratu, eta gauean Gaztetxean jarraituko du festak, Erokomeri eta Fan&go taldeen kontzertuarekin.

Gabon Zahar eguneko egitarau guztia agendan aurkituko duzue.

NAN eta pasaporteak egiteko bulegoa zabalduko dute Eibarren

Espainiako Gobernua eta Eibarko Udala akordio batera ailegatu eta gero, nortasun-agiria edo pasaporteak egiteko edo berritzeko aukera izango da Eibarren, 2018ko urtarrilaren 11tik aurrera. Bulego hori Eibarren zabaltzeko abantaila ugari ekarriko dizkie elgoibartarrei eta mendarotarrei. Aurrerantzean agiriak egin edo berritzeko aukera gertuago izateaz gainera, aurreitiko hitzordua eskatzerako orduan itxaron aldia nabarmen laburtuko da. Bulegoa zabaldu aurretik, urtarrilaren 8tik aurrera izango da alde aurreko hitzordua eskatzeko aukera, 060 telefono zenbakira deituta edo Internet bidez, www.citapreviadnie.es helbidetan. Harrera ordutegia: astelehenetik barixakura 8:00etatik 14:00etara.

Guztira, bederatzita bulego daude Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian agiria edo pasaporteak egin edo berritzeko. Gehienak, bost, Bizkaian daude (Bilbo, Basauri, Barakaldo, Getxo eta Portugalete); hiru, Gipuzkoan (Donostia, Irun eta Eibar) eta bakarra Araban (Gasteiz).

Ibaialde erakusketa, Mendaron

Ibaialde erakusketa jarri dute ikusgai Mendaron, eta urtarrilaren 11ra arte egongo da bertan. Goizeko 9:00etatik 14:00etara bisitatu ahal izango da, udaletxean. Ibaialde Ingurumen Hezkuntzako programa da, kostaldeari lotutako ekosistemen ezagupena bultzatu nahi duena. Ibaien egoerari buruzko informazio panelak jarriko dituzte, herritarrek horri buruzko kontzientzia har dezaten.

17,7 milioi euroko aurrekontua izango du Elgoibarko Udalak 2018an, aurtengoa baino %12,93 handiagoa

Atzoko Osoko Bilkuran onartu zuen Elgoibarko Udalak 2018an izango duen aurrekontua: 17,7 milioi euroko aurrekontua izango du datorren urtean; aurten baino bi milioi euro gehiago. Hain zuzen ere, %12,93ko hazkundea izango du Udal aurrekontuak 2018an. EAJren aldeko botoekin onartu zuen Osoko Bilkurak 2018rako aurrekontua. Lerro hauek osoko bilkura egin aurretik idatzi genituen. EHBilduk kontra bozkatuko zuela azaldu zion BARRENi, eta PSE-EE zalantzan zegoen aldeko botoa eman ala abstenitu.

Inbertsioak

Aurrekontuaren zati handiena inbertsioen atalak hartzen du, eta aurrekontuaren hazkundea ere inbertsioei lotuta ulertu behar da, izan ere, inbertsioen atala aurtengoa baino 1,5 milioi euro handiagoa izango da datorren urtean.

Inbertsioen atalean Aita Agirre eraikina berritzeko obra da diru gehien hartuko duena. Obrak aurtengo udan hasi zizuten, baina gastuaren zatirik handiena 2018an egingo dute. Eraikina berritzeko 1.900.000 euro erabiliko dituzte; altzariak erosteko 350.000 euro eta Aita Agirre plaza urbanizatzeko beste 350.000 euro. Kopuru horri aurtengo milioi bat euro gehituta, 3.600.000 euroko emaitza ematen du.

2018ko beste inbertsio berri bat Olai-zaga kiroldegiko igerilekuak handitzeko proiektua izango da. 130.000 euro erabiliko ditu Udalak proiektua idatzeko, eta obra 2019an burutuko dute.

2018ko aurrekontuetako beste berrikuntza bat herritarren parte-hartzerako gorde duten diru kopurua izango da: 200.000 euro. Diru horrekin parte-hartzerari lotutako hainbat proiektu gauzatzeko asmoa du Udalak, baina oraindik definitzeko daude. Azken urteotan herritarren parte-hartzerako hainbat prozesu gauzatu



Aita Agirre izango da datorren urteko inbertsiorik garrantzitsuen.

dituzte, eta datorren urtean aurrerapauso bat eman nahi du Udalak. Herritarren inplikazioa eta lankidetzat sustatzeko asmoa dute.

Oposizioaren iritzia

EHBilduk aurrekontuen kontra bozkatu zuen. Jose Luis Ibartzabalek esan du azken urteotan partaidetza eta gardentasuna hitzak asko erabili dituela Udalak, baina aurrekontuak egiterako orduan ez dituela gainerako alderdiak kontuan hartzen. "Aurrekontu irekiak eta parte-hartzailek egiteko erabakia hartu zuen Udalak partaidetza planean, baina ez du ezer egin". Azaroaren 28an aurkeztu omen zizkien EAJ-k aurrekontuak, abenduaren 21eko plenoan onartzeko asmoz. "Itxurakeriaz" jokatzeari leporatu dio EHBilduk EAJ-ri.

Inbertsioen atalean Aita Agirre eraikinaren berritzea da obra nagusia. EHBilduk beti defendatu izan du proiektu hori, eta poztu ziren EAJ-k ere proiektu horrekin bat egin zuenean, baina EHBilduren ustez horrelako inbertsio bat egitasmo orokor baten barruan kokatu behar da, eta ez dute horrelako asmorik ikusten. Gainera, salatu dute udal aurrekontua %13an igo den arren, Kultura Saila dela gutxien igo

dena. EHBildu herri honek behar duen politika kulturala auzolanean diseinatzeko prest agertu da.

Nerea Alustiza PSE-EEko zinegotziak azken ordura arteko zalantzak zituen bere botoarekin. Oro har aurrekontuarekin konforme zegoen, baina badaude bere ustez, hobetu beharreko kontu batzuk. Nerea Alustizak diru gehiago jarriko luke etxebizitza zaharretan igogailua jarri eta irisgarritasuna hobetzera, etxebizitza horietan jende nagusia bizi delako, bereziki. Horrez gain, ez dago konforme Udalak Hezkuntzako diru-laguntzak banatzeko duen irizpidearekin. Ikastolari Herri Eskolari baino diru "askoz gehiago" ematen diola esan du, eta bere ustez, Udalak desberdintasun hori berdintzeko ahalegina egin beharko luke.

Bestela, inbertsioen eta gizarte zerbitzuen atalak dituen diru kopuruekin konforme dago.

Nerea Alustizak gaineratu du Elgoibar ez dela arazoak ematen dituen herria, eta Udalak ez daukala zailtasun handirik aurrekontuak osatzeko orduan. Oro har, Udalak aurrekontuak ondo egiten dituela esan du zinegotzi eibartarrak, baina oraindik ere badagoela zer hobetu uste du.

Debabarreneko Energiaren Eskualdeko Behatokia aurkeztu dute



Debabarreneko sei herri jarri dute abian eskualdeko Energiaren Behatokia, Debegesarekin elkarlanean eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren laguntzarekin: Elgoibar, Mendaro, Deba, Eibar, Mutriku eta Sorluze. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen zuzendari Monica Pedreirak, Debegesako zuzendari nagusi Juan Angel Balbask eta Debabarreneko sei udaletako alkate eta ordezkariak parte hartu zuten aurkezpenean. Sei herriotan energiaren kudeaketarako SIE software bat ezarri dute (Energia Informazioaren Sistema) eta honek ahalbidetuko du udaleko energiaren fakturazio egokia kontrolatzea, hornidura energetikoen kontratazioa hobetzea, eta udalerrietako eraikin eta argiztapen publikoko koadro guztiak erregistratzea eta horien portaera aztertzea, eskualderako plataforma bakar batean. Inbertsiorik egin beharrik gabeko neurriak soilik hartuz, Behatokiak 74.073 euroko aurrezpen potentziala detektatu duela jakinarazi dute, energia faktura osoaren %4,3.

Elgoibarko Udalak informazio panelak jarri ditu herriko hainbat puntutan



Udalak bederatzita informazio panel jarri ditu udalerriko gune desberdinetan, herritarrek udal ekintzak eta interesekoak diren beste informazioak kontsultatu ahal izateko. Honako guneetan jarri dituzte: Urazandin, San Roken, Eulogio Estartan, Pedro Mugarutzan, Arriagan, Gabriel Kurutzelaegin, Santa Klaran, Trenbide kalean eta Basarte-Erretsundi kalea. Ekimen honen bidez Udalak helburu bikoitza du: batetik, herritarrei adierazpen liberako eta kartelak jartzeko gune egokiak eskaintzea eta bermatzea, eta bestetik, herria eta herriko kaleak garbi mantentzea, kartel eta iragarkirik gabe.

Gabonetan zabalik egongo da Maltzagarako bidegorria

Abenduaren 11n obrak hasi zituzten Maltzagarako bidegorrian, eta ordutik itxita egon da zati batean. Gabonetako oporraldian obrak geldirik egongo direnez, abenduaren 22tik urtarrilaren 8ra bidegorria zabalik egongo da.

Mendaroko Udalak erosketa zozketa jarri du martxan

Herriko merkataritza sustatzeko asmoz, Mendaroko Udalak erosketa zozketa jarri du martxan. Denda guztietan banatuko dituzte zozketarako txartelak, eta bezeroek txartel bat jasoko dute 10 euroko gastua egiteagatik. Bakoitzak bere izena eta telefonoa idatzi behar du txartelean, eta urtarrilaren 4an egingo dute zozketa. Mendaroko dendetan gastatzeko 50 euroko hamar txeki zozketatuko dituzte.

SotoTK, Atxutxiamaiak eta Ludotekaren eskaintza berria

Atxutxiamaiak eta Ludotekak hainbat ekintza antolatu dituzte elkarlanean Eguberrietarako, eta berrikuntzen artean, SotoTK dago. Kultur Etxeko sotoa jolastoki bihurtuko dute, abenduaren 26an (HH2-HH4koentzat), abenduaren 27an (HH5-LH1ekoentzat) eta abenduaren 28an (LH2-LH3koentzat). Egun bakoitzean bi txanda egongo dira aukeran, 17:00etan lehenengoa eta 18:15ean bigarrena. Sarrera doan izango da. Sukalde txokoa, psikomotritzitate gunea, eskulanak, mahai eta karta jokoak izango dituzte aukeran.

Belaustegi Baserria



JATETXEA

*Etxekoekin batera
gozatu ospakizunak
lekua har dezatela
bake eta maitasunak.
Besarkada bat bihotzez
Urte berri on, lagunak!*

www.belaustegi.com

San Migel Gaina z/g

Tel.: 943 743 102





Domekan, BARREnek 25 urte


AMETSA, EGI BIHURTUTA.....



Egin dezagun atzera, 1992ko abendura arte. Zehazki, abenduaren 24ra, orduan ikusi zuelako argia BARRENen lehen zenbakiak. Olentzeroren oparia izan zela esan izan dugu, Olentzerok berak ekarri zuelako Eguberri egun bezperan, baina Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneko lau zepost profesionalak eta beste horrenbeste bazkide-militantek sortu eta elgoibartarrek ondutako proiektua dela esatea zuzenagoa litzateke. Askoren artean egindakoa delako BARREN. Kolaboratzaile asko eta finak ditu bueltan, eta euren onena emate(n) dute beti, dela letretan, iritzitan, edota dirutan.

Garai zailak ezagututakoa zen orduko Elgoibarko Izarra. Itxi bai ala ez ere ibili ziren bazkideak, baina 1991n, garai berria hasia erabaki zuten eta proiektu erakargarri bat sortu premia zuten, elkartearen izena eta konfiantza berreskuratu-

tzeko. Inguruko herrietan estimu handia zuen proiektuan jarri zuten begia, euskarazko tokiko aldizkarian, eta halaxe sortu zuten BARREN astekaria, astakeria zirudiena egi bihurtuz. Tokiko komunikabideen loraldia zen.



'BARREN'-EK LORTU DUENA

25 urte beteko ditu BARRENek abenduaren 24an, eta esan gabe doa urte guzti hauetan herritarrek eta BARRENek hautsi ezinezko harremana egin dutela. Herri mailako proiektu erreferente eta komunikatiboa da gaur astekaria eta BARRENi esker, elgoibartarren arteko distantziak lehen baino txikiagoak dira. Elkarren berri ematen digun neurrian, Elgoibar lehen baino herriagoa da gaur, eta aldi berean, auzorik gertuena duen Mendarorekin ere sendotu du harremana. Mugak ere leundu ditu beraz, eta mundua ere txikiagoa da gaur, Elgoibartik kanpo bizi diren 380 lagunek jasotzen dutelako aldizkaria astero.

Aipagarria da beraz herrigintzan egin duen ekarpena. Euskara hutsean izanda ere, BARREN ez da euskaldunentzat bakarrik; ezta soilik abertzaleentzat prestatutakoa, ez delako ideologia jakin batekin pentsatuta egin. BARRENi adin, sektore, ideologia eta klase guztietako jendeak zabalitzen dio atea barixakuro, eta harro esaten dugu Elgoibarko eta Mendaroko berri euskaraz jaso nahi duten guztientzat egindakoa dela proiektu hau; hitz bakarrean, proiektu irekia da. Baina ez da horretara mugatzen herrigintzari egindako ekarpena: BARRENek bestelako hedabideetan sekula lekurik izango ez luketen protagonistei egin die lekua. Erakutsi du denok dugula zer kontatua eta herria herritarrek egiten dutela. Askoren begietara anonimoak direnak izen-abizendunak dira BARRENentzat, benetako protagonistak Elgoibarko eta Mendaroko historian, eta haien ahotik osatu du bi herrion memoria bizia.

EUSKARARI EMAN DIONA

Esan beharrik ez dago egin duen dena egin duela BARRENEK euskararen alde. Are, erreferentzialtasuna irabaziz joan den hein berean, euskara jakitea beharrezko egin du Elgoibarko berri izateko. Izan ere, Elgoibarko hedabide herrikoi eta zabalduenak dioena ulertzeko euskara jakin behar da gaur. Baina poza, poza izanda ere, ez da beti erabatekoa. BARREN da etxe askotan sartzen den euskarazko argitalpen bakarra eta BARRENEN irakurle direnen ehuneko handi batek ez du euskarazko beste aldizkaririk jasotzen. Pozgarria da erdal produktuen artean BARRENEK lekua egin izana eta erreferentzialtasuna lortu izana, baina pena da euskarazko beste produktuek ez izatea gureak besteko estimurik. Nolanahi ere, bistan da BARRENEK euskarari izugarritzeko ekarpena egin diola. Euskaraz irakurtzera eta idaztera ohitu ditu herritarrek, publizitatea euskaraz egin zitekeela erakutsi du, eta aldi berean, erdaldun asko ekarri edo gerturatu ditu euskararen mundura. Erakutsi du euskaratik eta euskaraz eginda, beste asko bezain interesgarri dela gure mundua. Hortaz, euskaldunon autoestimua -sarri horren ahul agertzen duguna- ere indartzeko balio izan du.

Euskaraz irakurtzeko ez ezik euskaraz idazteko trebetasuna hartzen ere lagundu die BARRENEK, esan bezala, herritar askori. Hamaika kazetariren lehen lantokia eta eskola izan da, baina

MENDARORI ZABALIK.....

Elgoibarri lotuta eta elgoibartarrentzat sortu zuten proiektua 1992an, baina Mendarori ere zabaldu dio atea. 1993ko urriaren 1ean jaio zen Kilibarren Mendarorako hilabetekaria, Anton Zubiaurre (EAJ) alkate zen garaian. Urte askoan herritarrek eurek eutsi zioten proiektuari, harik eta 2001eko irailean BARRENEko lantaldeak bere gain hartu zuen arte hilabetekariaren gaineko ardura. Maria Longarte, Aingeru Gallastegi, Haritz Goikoetxea, Ziortza Urbieto, Iraide Loiola, Garbiñe Zabala, Alaitz Vives, Aitor Etxeberria, Mikel Garate eta Joseba Etxeberria batu ziren herritarrek osatutako hasierako lantalde hartara. Baina 2002a bitartean, kimu berri ugari izan zituen lantalde hark, eta gazte askoren eskola eta herri oso baten erakusleihu izan zen.



baita beste herritar askoren trebatze-eskola ere. Are, hezkuntzan diharduten profesionalak eskola-materializatzen ere erabili izan dute. Puntu honetan aipagarria da BARRENEK kazetaritza-hizkuntza arautzeko 2010eko martxoan kaleratu zuen Estilo Liburua. Oier Narbaiza kazetari eibartarrak jaso zituen idaztarauok Estilo Liburuan, baina Jesus Mari Makazagaren eta Andres Alberdiren laguntza ezinbestekoa izan zuen lanketa horretan, bai eta *Euskaldunon Egunkaria*, *Berria* eta *Goiena* taldeko Euskara arduradunena eta hedabide horiek argitaratutako antzeko araudiena ere.

kili BARREN
Urteko 30a
44. urte



KILIBARRENEK berria ere ekitaldi osatu, lehenengo aldiz honetako auzoko dugun argitalpena hona da. Iniziatzailea Juan Leizola laga digu eta bertan, Mendarori gure ikasleak hiru urteko aldia, 1998. urte inguruan auzoko dugun. Oinarri Saino eratu berri, Argitaratuko berria. Baina honen argitaratzearen ondoren lan-ekitaldiak: Gurea aldiak, ekitaldiak, baita: Maria Leizola, Jose Mari Leizola, Juan Leizola, Joseba Etxeberria, Aitor Etxeberria, Aingeru Gallastegi, Haritz Goikoetxea, Ziortza Urbieto, Iraide Loiola, Garbiñe Zabala, Alaitz Vives, Aitor Etxeberria, Mikel Garate eta Joseba Etxeberria batu ziren herritarrek osatutako hasierako lantalde hartara. Baina 2002a bitartean, kimu berri ugari izan zituen lantalde hark, eta gazte askoren eskola eta herri oso baten erakusleihu izan zen.

San Francisco, 27
Tel. 74 26 21

Idiada Arriago

CENTRO PSICOLOGICO
IBILTZEN
ZENTRO PSICOLOGICO

Urteko 30a: 11 / Tel: 74 36 06

INTERNETEN, GERO ETA INDAR HANDIAGOZ

2006ko urriaren 26an sortu genuen BARRENen neba-arreba digitala, Elgoibarko eta Mendaroko berri emateko, eta pentsatzekoa zen bezala, tarte honetan izugarrizko bilakaera izan du Internetek. Gaur egun, sakelako telefonoetatik sartzen gara gehienok Internetera, eta gure webgunera datozen bisita gehienak sare sozialetatik datoz. Datu bat: Gaur egun www.barren.eus webgunera sartzen diren %89 Facebooketik datoz, eta %9, Twitterretik. Facebookeko gure orrialdeak 2.257 lagun dauzka gaur egun, eta 1.100 lagunek jarraitzen gaituzte Twitter sare sozialean. Youtube da gure beste erreminta erabilia. Estreinako bideoak argitaratzen hasi ginenean Elgoibarren.net izenez lehenengo eta barren.eus izenez gero nobedade handia izan zen herritarrak eta herriko hainbat ekintza bideoan jasota ikustea, baina ohitu gara horretara. Azkeneko urteotan ahalegin berezia egiten ari gara bideo-gintza lantzen, jakin badakigulako sarean lekua irabazteko ezinbestekoa dugula, eta dagoeneko, 500 bideo baino gehiago dauzkagu zintzilikatuta. Ikustaldiak neurtzen ditu Youtubek, eta horri erreparatuz gero, barren.eusek erreferentzialtasunean nabarmen hobetu duela esan dezakegu. Badira, jakina, bideo batzuk, gaigatik edo beste mila arrazoigatik, ikustaldi gehiago dituztenak, eta aurten, azaroan esegi genuen bat izan da ikusiena, San Roke auzoko etxebizitza batean izan zen sutearen hariara egin genuena. 9.900 bat ikustaldi izan zituen, eta sareratu genuen egunean, Trending Topic izan zen Espainian. Hau da, Espainian egun horretan ikusienak izan ziren bideoen artean sailkatu zuten.

Interneten egotea, baina, ez da nahikoa. Internetek sendo egon behar da, eta horrek beste lanketa bat eskatzen du, Internet uneoro ari delako berritzen, abiada bizian gainera. Eta hor dugu erroka. Gida komertziala, PDF bihurtutako BARRENak Elgoibar eta



Mendaroko historia biziaren hemeroteca eta Komunitatea dira Interneteko gure atariko lau atal nagusi, eta ari gara fintzen eta garai berrietara doitzen, baina dena ez da guk nahi bezala irteten. Komunitatea atalean jarri genuen ilusioa eta itzaropena, baina ez du guk nahiko gukeen besteko eragina izan. Herriko norbanako eta elkarteei zabalduetako leihoa da Komunitatea, euren lanaren bozgorailu izateko BARRENek eskura jarritako erreminta, baina parte-hartzea ez da guk nahiko gukeen bestekoa. Eguneroko lanak eta haien lehenasuna beste bat izateak tratatzen du elkarte eta norbanako horiek guk nahiko gukeen maiztasunez ez idaztea. Komunitatea aktibatzen ahalegin berezia egin dugu, eta eutsiko diogu bide horri, sinistuta gaudelako herrigintzarako zubi garrantzitsua izan daitekeela.

ZER DA TOKIKOM MARKA?

Euskarazko toki komunikabideok 2012an jarri genuen martxan Tokikom marka, sektorea egituratzeko, eta aterkipe horretan ari gara hazten. Ezaugarri eta helburu antzekoak ditugun proiektu txiki askoren indar metaketa da Tokikom. Gaur egun, 26 bazkide ditu, orotara 60 komunikabide kudeatzen dituztenak, euskarri guztietan: papera, irratia, telebista eta digitala.

TOKIKOM

'BARREN'-EKO KAZETARIEK JASOTAKO SARIAK

Rikardo Arregi kazetaritza sarietan epaimahaiaren sari berezia jaso zuen Ainoa Argoitia BARRENeko kazetariak 2013an. Gai rapilatsuak lantzeko hartu zuen tonu serio eta estridentziarik gabea eta idazkeraren dotorezia eta adierazkortasuna azpimarratu zituen epaimahaiak. Baina ez da BARRENek jaso duen sari bakarra izan. 1993an, Emakunde sarietako bat jaso zuen Ainhua Lodosok: kirol informazioaren atalean ohorezko aipamena.



NOLA FINANTZATZEN DA 'BARREN'?

Sarrera propioek eta diru-laguntza publikoek osatzen dute BARRENen finantzazioa. 2017an, erakunde publikoek BARREN aurrekontuaren %67 laguntzen dute diruz (Elgoibarko Udalak %37, Eusko Jaurlaritzak %36, Gipuzkoako Foru Aldundiak %18 eta Mendaroko Udalak %9); gainerako %33 publizitateetik (%87) eta Zorionak eta Merkatu Txikia ataletako sarrerekin finantzatzen da. Proiektuaren bideragarritasuna lortzea izan da beti BARRENen erronka nagusia eta jarraitzen du izaten. Gerriko estuarekin lan egitera ohitu gara, baina garai oso zailak ere pasatu ditugu. Zailena, beharbada, kolorea eta lau orrialde galdu zituenean.



AITA AGIRRE ERAIKINEAN DU ETORKIZUNA

Deba ibaiaren kontra dago BARRENen lokala eta hezetasun-arazoak handiak dira. Sortu zeneko lokal berean dago BARREN, baina etorkizuna Aita Agirren dauka. Izan ere, Elgoibarko Udala Aita Agirre eraikina berritzen ari da, kulturari eskaintzeko, eta espazio horretan Elgoibarko Izarrari ere egingo dio lekua. Espazio horretara aldatuko du bulegoa beraz BARRENek etorkizun hurbilean.

ZEINEK BANATZEN DU 'BARREN'?

4.842 ale banatzen ditugu astero, horietatik 390 Elgoibar eta Mendarotik kanpora, postaz. Gainerako aleak banatzaile talde batek banatu izan ditu oraintsu arte, baina martxoaz geroztik enpresa batek banatzen du BARREN, Elgoibarren. Diru-sarrerak faktura bidez aurkeztu beharrak bultzatu gintuen erabaki hori hartzera. Ez zen gure gustuko erabakia izan, baina momentuan ez genuen beste biderik topatu. Horixe izan da erabaki honen alde beltza. Izan ere, jabetu gara herriko gazte kuadrilla bat hileroko diru-sarreratxo hori gabe gelditu dela. Mendaron jarraitzen dugu gure ohiko banaketa-sistemarekin eta herriko bi-hiru gazteren ardurapean dago BARREN zuen buzoietara iristea.

OSPATZEKO URTEA

Abenduaren 24an, domekan, beteko dira 25 urte BARREN sortu zutela, eta ospatzea dagokigu orain, 25 urte ez direlako hola-hala betetzen. BARRENek egindako ekarpena gogorarazteko eta elkarrekin gozatzeko hainbat ekintza egingo ditugu urte osoan zehar. Hasiera, baina, urtebetetze egunean bertan emango diogu. Olentzerok aipamen berezia egingo dio BARRENi, eta gaurtik datorren urteko abenduaren arteko zenbaki guztietan, leku berezia izango du urteurrenak astekarian bertan. Anekdotak, sekula argitaratu gabeko kontu bitxiak, efemerideak... ekarriko ditugu gure orrialde-eta, eta astekarian protagonista izan direnak ere jarriko ditugu BARRENek azal-orrira eraman zituen egunekoak eta beste gogorarazten. Denok egin dugu, baina, BARREN eta lanketa horretan, herritarrei ere eskatuko dizuegu laguntza, parte-hartzea. Memoria ariketa da egingo duguna; jolasa da proposatzen duguna. Horrez gain, urtean zehar beste hiru ekintza nagusi ere egingo dira, herriari eskerrak eman eta herrigintzatik sortutako proiektu honek eman diguna erakusteko. Baina ez dezagun lehenengo kolpean dena esan. Jolas gaitzen. Zaudete bizi eta astez aste joango gara jolase-rako argigarriak ematen. Baina goza dezagun ospakizuna eta jarrai dezagun elkarrekin urteak zenbatzen. Eta norbaitek nahiko balu, urteurreneko ekintzetan lagundu, datorrela BARRENera, erredakzioko atea zabalik aurkituko du-eta.





Lanbroga

Pedro Muguruza, 5

943 743 811

943 740 806

Gabon zoriontsuak herritar guztioi!

- EGUNEKO MENUAK
- MENU BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- BOKATAK ERAMATEKO
- PINTXOAK

ibai-ondo erretegia

943 256 028



1983

Bizikleta ibilaldia egin zuten 1983ko uztailean argazkiak ekarri dizkigun Jon Ortuostek eta beste hainbat lagun elgoibartarrek. Tourmaleteko gainean ageri dira goiko argazkian. Sainte Marie de Campan-etik igo ziren mendatean gora eta gainean Jesus Loroño txirindulariarekin egin zuten topo. Luz Saint Sauveretik igoa zen hura, eta orduan bete ziren 30 urte etapa Tourmaletetik pasatu zenetik eta mendiko elastikoa irabazi zituenetik. Elgoibartarrek, nola ez, berarekin atera zuten argazkia.



Goiko argazkian, ezkerretik eskumara: ezezaguna, Jon Ortuoste, Javier Basalo, Patxi Lodoso, Josexo Garcia, ezezaguna, ezezaguna, Joaquin Diaz, Jokin Badiola eta Jesus Loroño.

Aubisqueko gainera igo aurretik mokadu bat jateko atseden hartu zutenean ateratako argazkia da behekoa. Hotza eta lainoa izan zituzten lagun etapan, eta jaitsitakoan, dutxa hartu eta garagardo batzu hartuta berotu ziren.

Beheko argazkian, ezkerretik eskumara: Joaquin Diaz, Jokin Badiola, Patxi Lodoso, Josexo Garcia, Javier Basalo, Jon Ortuoste eta Juan Molina.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Arriaga auzoan oinezkoentzako pasabidea behar da: "Arriaga auzoko bizilagunok egunero bizia arriskuan jartzen dugu: lau errail gurutzatu behar ditugu

etxetik irten eta autobus geltokira joateko. Goizetan ilun egoten da, eta auto gidariek askotan ez gaituzte ondo ikusten. Autobusak, gainera, ez dira geltokitik pasatzen, eta errepidera irten behar izaten dugu gidariari geratzeko keinua egitera, baina autoak badatoz, oso arriskutsua da. Behin baino gehiagotan galdu dut autobusa horregatik. Euria egiten duen egunetan are arriskutsuagoa da, errepidean labaindu egiten garelako. Leihotik ikusi nuen joan zen astean nire alaba lurrera nola erori zen, eta bi aldeetatik zetozen autoak. Mirari bat izan zen alaba ez harrapatu izana. Botoidun semaforo bat eskatzen dugu, Maalako errotondan dagoena modukoa. Oinezkook ziurtasunez gurutzatzeko eskubidea daukagu Arriagan ere". Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziak esan du errepide nazionala Foru Aldundiaren kompetentzia dela, baina Udalak bitartekari lanak egin dituztela. Foru Aldunditik erantzun diete ingurune horretan zebrabidea edo semaforoa jartzeari ezinezkoa dela, baina erdibideko irtenbideren bat aztertuko dutela.



Lerungo industrialdean oinezkoentzako zebrabideak falta dira: "Lerungo industrialdean jende asko

ibiltzen da pasiatzen, eta hainbat lekutan zebrabideak falta dira, espaloi batetik bestera pasatzeko. BM supermerkatua dagoen aldetik herrirantz hartzeko errotonda erditik pasatu behar izaten dute oinezkoek, horrek dakarren arriskuarekin. Eskertuko genuke oinezkoentzako zebrabide gehiago jartzeari. Horrez gain, ingurune hura zikinkeriaz beteta egoten da. Jendeak denetarikoz zaborra botatzen du han lurrera. Eskatu nahi diet herritarrei ez izateko horren narratsak, eta ingurunea errespetatzeko". Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziak esan du industrialde hori oraindik ez dela Udalarena, oraindik amaitu gabe dagoelako. Industrialdeko juntak lehenengo fasean ekintza batzuk egin zituen, eta bigarren fasean paseo bat egiteko konpromisoa daukela azaldu du Arraizek. Ez dakite noiz egingo duten, baina, Udalak lehenbailehen egiteko eskatu diola esan du.




Meka atzealdeko bidegorrian argiak falta dira: "Pare bat aste inguru izango dira Meka atzealdeko bide gorriko farolak hondatu zirela, eta oraindik ez dituzte konpondu. Bide horretan jende asko ibiltzen da, eta argiak beharrezkoak dira. Eskertuko genuke lehenbailehen konpontzea. Eskerrik asko". Udaleko hirigintza arduradunak esan du konpontzeko saiakera bat baino gehiago egin dituztela, baina oraindik ez dutela aurkitu arazoaren iturburua. Lehenbailehen konpontzeko asmoa dutela esan du.

Karakolean txakur kaka ugari egoten dira: "Azkenaldian egunero egoten da txakur kakaren bat Karakolean. Gainera, Karakoleko hainbat farola ez dabilta oso ondo, eta ondorioz, iluntzetan kaka zapaltzeko arrisku handia izaten da. Txakur jabeei eskatu nahi nieke euren txakurren kakak jasotzeko. Beraien betebeharra da, eta ez badute betetzen, isunak ordaindu beharko lituzkete".

2017

urteari errepasoa.....





Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak C.D. Elgoibarren mendeurenari eskaini zion erakusketa. Antton Iranzo C.D. Elgoibarko presidentea zenak jaso zuen oroigarria.



Mendaroko Garagartza auzoa urak hartu zuen berriz ere. Eurite handien ondorioz erreken ur emaria nabarmen hasi zen, eta arazoak sortu ziren. Deba ibaiak gainezka egin zuen Altzolan, eta ohiko arazoak eragin zituen Mendaron. Deba ibaia hain zetorren hazita, ezin izan zuela Kilimoiairen ur emaria hartu eta estoldetatik gora hasi zen ura Garagartzan.



Auto batek eta kamioi batek aurrez aurre jo zuten Saturio inguruan eta Soralezeko 80 urteko gizon bat hil zen.



Aita Agirre eraikina berrantolatzekeo proiektua ezagutarazi zuen Elgoibarko Udalak. Aita Agirre berri eta kultur gune modernoak izateko egokituko dute. Ondo bidean, 2019ko otsailerako zabalduko dutela esan zuen Udalak.



elgoibar ikastola
zuentzat eta zuekin eguneroko jardunetan etorkizuna erailen

Pedro Miguel Urutano, laoc. - Erriuzarribale, 7 - Posta 53 - 20870 Elgoibar - Tel. 943 744 411 - elgoibar@elgoibarikastola.eus

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olosope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

MEKANOSA

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar



□ C.D. Elgoibarrek mendeurrenako ospakizunak hasi zituen Herriko Antzokian egin zuten galako ekitaldiarekin. C.D. Elgoibarren iragana eta oraina uztartu zituzten, eta klubari lotutako izen handiko lagunek parte hartu zuten ekitaldian. Ekitaldian, Ricardo Garate Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko presidentea izandakoa ere omendu zuten.



□ Angela Davisen *Women, race and class* liburua euskaratu zuen Danele Sarriugartek, Elkar argitaletxearen eskutik, Eskafandra Feminista bildumaren barruan. Angela Davis pentsalari eta aktibista ezagunak emakume, beltz eta klase sozial apalekoa izateak dakartzan hiru zapalkuntzak lotu zituen liburu horretan.



□ Eskola jazarpena amaitzea helburu duen Kiva programa jarri zuen martxan Ikastolen Elkarteak 52 ikastetxetan, tartean Elgoibar Ikastolan.



Muruamendiaraz

1935etik gozogintzan

www.muruamendiaraz.com

Gabon zoriontsuak!



Erreminta makinari buruzko euskarazko tesia aurkeztu zuen Xabier Cearsolok IMHn. Estreinakoz defendatu zuten fabrikazio aurreratuaren eremuko doktorego tesia IMHn, EHUrekin egindako elkarlanari esker.



Felix Etxeberria Parapan torturatua izan zela onartu zuen Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza eskubideen zuzendaritzak, eta Etxeberria biktima dela aitortzeko eta "bidegabekeriak gogorazteko jardura kolektiboetan" sartzeko eskatu zuen. Felix Etxeberria bi aldiz atxilotu zuten 1970ean, eta bi aldietan, tortura, tratu txarren eta polizien mehatxuen biktima izan zela onartu zuten.



Jose Luis Larrañaga gailendu zen Mekatar Iriondo Xake Txapelketan. 40 xakelarik hartu zuten parte lehiaketan eta lau hilabetez aritu ziren lehian elkarren aurka. Mikel Leonen kontra jokatu zuen finala Larrañagak.



karkizano
Gabon zoriontsuak!
San Francisco, 14
Tel.: 943 740 549
Elgoibar

Maria Urizar
Ileapaindegia



Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar
maria.urizar@hotmail.com



**ASESORIA
GOAR**

**KONTABILITATEA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 behea - Elgoibar Tel: 943 742 674 / 943 740 234
asesoria@asesoriagoar.com Faxa: 943 742 129



■ C.D. Elgoibarren mendeurreneko martxa estreinatu zuen Elgoibarko Udal Musika Bandak. German Meabebasterretxea bertso-lariak idatzia da letra, eta musika, berriz, Txomin Mujikak sortua. Aste berean, kromo eta bilduma propioa atera zituen Klubak, talde guztietako jokalaria eta teknikoen argazkiekin.

■ Duintasunaren Kolunbarioa zabaldu zuten Olasoko hilerrian, 36ko gerran hil eta zientziak identifikatzerik izan ez dituenen gorpuzkinak biltzeko. Eusko Jaurlaritzak, Aranzadi zientzia elkar-teak eta memoria historikoaren aldeko elkarteek elkarrekin eman zuten pausoa eta denek parte hartu zuten ekitaldian. 27 lagunengorpuzkinak daude hilobiratuta Kolunbarioan.



San Bartolome 30,
Tel.: 680 724 060

Plaza txikitik ere badu sarrera!
ibarrenea@hotmail.es

ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN
EGINDAKOA

KONTSERBAK
ETA ARDOA

Gabon zorientsuak!






Joseba Zinkunegi eta Iker Jausoro hil ziren Ezkarain, San Lorenzo menditik behera amilduta. Elurretako erraketekin trekking egiten ari ziren Zinkunegi eta Jausoro San Lorenzo mendia (2.271 metro) ipar aurpegian, Colocobia izenez ezagunagoa den lekuan, elurretan laban egin eta mendian behera eskiaitzeko pistetaraino amildu zirenean. Al-bistearen biharamunean, dolua zabaluzen herrian.



Uxue Alberdik Maialen Lujanbio elkarrizketatu zuen Elgoibarren. Euskara biziberrituko badugu, euskara ardatzean jartzearen premia mintzatu zen Lujanbio, eta esan zuen politikan eta gure eguneroko jardunean euskara, sarri, "trabatik estorbura" ikusten zuela.

Kirolerako eta aisialdirako gune berria sortzeko proiektua aurkeztu zuen Mendaroko Udalak. Ospitale azpiko parke ingurua egokituko du horretarako eta obrak 627.000 euroko aurrekontua izango du. Paderako kantxa, kirola egiteko dozena bat makina, kirol anitzerako kantxa, skate-parkea eta haurrentzako txorrot-gunea eraiki asmo dituzte. EAJk gogor kritikatu zuen, esanez gune horrek ez ziela erantzuten herriaren benetako beharrei.



Iñigo Larizek Euskal Herriko mendi eskiko bikotekako Altitoy proba irabazi zuen, Igor Alzelairekin bikotea osatuta. Altitoy lasterketa orokorrean, berriz, Jabi Dominguezek eta Arkaitz Iruretak osatutako bikotea izan zen Euskal Herriko bikoteen artean bigarrena.

AHOLKULARITZA

BIKAIN

ASESORIA

Tel.: 943 744 557
Faxa: 943 740 408
e-posta: bikain@fonocom.es

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR

DOÑA MERCEDES

San Frantzisko, 21
20870 Elgoibar
Tel.: 943 742 652
943 742 137

Jai zoriontsuak!

Imprenta Arrillaga

Inprimaketa: Offset
Digitalean

Ezkerreko gorbiderarik
Hileta oragarriak
Sista tsartelak
Kartelak - etiketak
e.a.

Fotokopiak

Koloretan
Txuri-beluzean

GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI


Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87
e-posta: arrillagas@euskalnet.net



□ Debabarrenako orfeoia estreinako kontzertua eskaini zuen Elgoibarren. Jose Miguel Laskurainek zuzendu zituen orfeoia eta Debabarrenako orkestra sinfonikoa, eta Inazio Bereziartua eta Bergarako musika eskoletako ikasleak ere oholtzan izan ziren, orfeoiari laguntzen.



□ Hasier Etxeberria (Elgoibar, 1957) hil zen, minbiziak jota. Kulturgintzarekin eta euskalgintzarekin harreman estua izan zuen, eta besteak beste, kazetari, gidolari, aurkezle eta idazlea izan zen. Elgoibarren ekitaldi zibila egin zuten haren omenez, Kalegoen plazan, eta haren izera kritiko eta setatia eta bere estilo fina goratu zituzten gertuko lagunek agur-ekitaldian.



□ Iker Amutxastegi Elgoibarko bizilaguna hil zen istripuz Azkaraten. Trailer batek artaziarena egin zuen eta lau auto jo zituen. Istripuaren ondorioz, hiru lagun hil ziren eta beste bost zauritu.



□ *Ordago a pequeña* dokumentala aurkeztu zuen Lorea Perez de Albeniz elgoibartarrak. Euskal Herriko historian berebiziko garrantzia izan zuten Euskadiko elizbarrutiko misiolarien lana eta Bittor Garaigordobil Los Rioseko gotzainchiaren ibilbidea laburtzen ditu lanak.

**GRUPO UNCETA TE DESEA FELIZ NAVIDAD
Y UN 2018 LLENO DE ÉXITOS**

**GRUPO UNCETA GABON ZORIONTSUAK
ETA 2018 ARRAKASTAZ BETEA OPA DIZUE**

**GRUPO UNCETA WISHES YOU A MERRY
CHRISTMAS AND FULL OF SUCCESS 2018**

**GRUPO UNCETA US DESITJA UN BON
NADAL I UN FELIÇ ANY NOU 2018**





□ Apirilaren 5ean pasatu zen Korrika Elgoibartik eta Mendarotik. Hogeigarren aldiz zeharkatu zuen AEKren egitasmoak Euskal Herria. Martxoaren 31n abiatu zen Otxandiotik eta apirilaren 10ean bukatu zen, Iruñean.



□ 36ko gerran, frankistek euren herrietatik kanporatu zituzten emakumeak omendu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ekitaldian parte hartu zuen, Libe Iriondo mendarotarrak, BARRENEk gerra elkarriketatuetako batek.



□ C.D. Elgoibarreko Ohorezko Mailako jubenilen taldeak Cristal International Cup txapelketa irabazi zuen Praia de Vieran (Portugal). Finalean, Pinto talde madrildarraren kontra jokatu zuten.



□ UEMA Udaleri Euskaldunen Mankomunitatean sartu zen Mendaro. Udal batzarrak ahabatez onartu zuen UEMA sartzea, kezkatuta zeudelako azken urteotan euskararen ezagutzan eta erabileran behera egiten ari zelako Mendaron.

Gabon zoriontsuak!

PSOE

AGURTZANE c.b.

Fotodepilazioa egiten dugu

GABON ZORIONTSUAK!

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

ileapaindegia

Jon Aranoa
Guillermo Torres

Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenerdik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

leopaindegia zerbitzua deskargatu. Dute ordua hartzeko.

Elgoibarko Lagun Taldeko bi txirrindularik, Imanol Alvarezek eta Ion Astigarragak, jubeniletako Gipuzkoako selekzioarekin parte hartu zuten Valladoliden jokatu zuten Federazio Kopan.



Jose Inazio Sarasua hil zen hilaren 11n. 1985. urtetik 2000. urtera Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari taldeko zuzendaria izan zen, eta arrasto sakona utzi zuen kulturgintzan. "Umezurtz gelditu gara" idatzi zuen Haritz Euskal Dantzari Taldeak blogean, Sarasuaren heriotzaren berri izan eta bat. 60 urte zituen.



Euskadiko Duetloi Kros Txapelketa irabazi zuten Iñaki Konde eta Iñigo Ortuostek, nork bere kategorian. Ortuoste 20. postuan sailkatu zen proban, 1:14:45eko denborarekin, eta bera nagusitu zen 50-60 adin tartekoetan. Iñaki Kondek 1:43:20ko denbora behar izan zuen proba amaitzeko eta bera gailendu zen 60 urtez gorakoetan.



Maite Maiora omendu zuten Kilimon Trail mendi lasterketaren antolatzaileek, proba egunean bertan. Maiora bera nagusitu zen proban, eta errekor berria ezarri zuen gainera, Virginia Perezek aurreko edizioan ezarritakoa 20 minutuan onduta. Gizonezkoetan, Julen Larruzea gailendu zen.

Softlan S.L.

Albitxuri industriagunea, 3i
20870 Elgoibar - Gipuzkoa
943 748 105

www.softlan.biz - www.softlan.eus
info@softlan.biz

*Jai zoriontsuak
eta 2018 urte emankorra!*

Enprestarako Software-an espezializatuak



ERP, Kudeaketa, Fabrikazioa, CRMa,
Fakturatzea, Kontabilitatea,
Lanpartek jasotzeko Programa,
Neurrira egindako Programak, Hardware,
Segurtasun informatikoa.

www.softlan.biz - www.softlan.eus



□ Gure Esku Dagok deituta herri galdeketa egin zuten Debabarrenean maiatzaren 7an, eta baita Elgoibarren ere. 16 urtefik gorako elgoibartarrek zuten botoa emateko aukera, eta horietatik %22,12k bozkatu zuten, 2.113 lagunek. Debabarrenean %18,74koa izan zen parte-hartzea.



□ Elgoibarko Iza-rrak eta Mendaroko Udalak akordioa sinatu zuten, Mendaroko udalekuak eta gabonlekuak kudeatzeko. Udalekue-
tan 61 umek eman zuten izena.

□ Eli Ibarra Athleticen jokalaririk denboraldi amaieran futbola utziko zuela iragarri zuten. Hamabost denboraldi egin ditu elgoibartarrak Athleticen, 413 partida jokatu ditu eta 111 gol sartu ditu. Taldearen sorreratik izan da Athleticen jokalaria.



□ Iñigo Cearsolok Debabarreneko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua zuzendu zuten, Eibarko Coliseo antzokian. Zuzendaritza ikasketen barruan praktikak egiteko baliatu zuten kontzertua.

HAIR'S
ILEA PAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN JUBILATUEN EGUNA:

- Orraztu 9€
- Garbitu, moztu eta orraztu 18€

ZA
ZURE ALDE

Iñaki Gil Azpilicueta
ABOKATUA

Zibil-Jabetza horizontala
Komunitateen kudeaketa

Jausoro plaza, 3 -behea 943 531 351 gilazpilicueta@zurealde.net
Elgoibar

Autoeskola
LARRAÑAGA
Etorri eta teorikoa atera ezazu
17 urte bete baino lehen!

URTE BERRI ON!

Santa Ana Kalea, 11 behea - 20870 Elgoibar 943 741 011
elgoibar@autoescuelalarranaga.com

Mahasterrera Kalea, 10 behea 30570 BERGARA 943 761 663



14.000 marihuana landare atzeman zituen Ertzaintzak Arriaga industrialdeko enpresa zahar batean. Polizia operazio horretan bost lagun atxilotu zituzten.



Viento Sur saskibaloia taldeak Lauko Finala irabazi eta mailaz igotzea lortu zuen. Aurtengo denboraldia, beraz, Gipuzkoako Lehen Mailan hasi du taldeak.



Futbolean eta atletismoan nabarmendu diren elgoibartarrak omendu zituen C.D. Elgoibarrek: Espainiako futbol ligako lehen mailan jokatzera iritsi diren elgoibartarrak edo C.D. Elgoibarren jokaturakoak, eta atletismoan Espainiako txapelkun izandako klubeko kideak.

Maite Maiora eta Iñigo Larizek Kilo-metro Bertikalen Espainiako txapelketa irabazi zuten.



ETXEPE Lan bereziak
Grandes mecanizados

Mekanizatu handietarako adituak

Tel.: 943 741 297 / 943 740 664

Faxa: 943 744 321

www.etxepe.com

etxepe@etxepe.com





☐ Zegama-Aizkorri mendi lasterketa irabazi zuen Maite Maiorak. Ametsa egi bete zuen, eta aitortu zuen oraingoan irabazteak bakarrik balio ziola.




☐ Elgoibarko Udal Musika Bandak Valladolideko Celtas Cortos taldearekin eskaini zuen kontzertua. Kalegoen plaza txiki geratu zen.



☐ Joxean Egaña IMHko zuzendari izandakoa omendu zuten IMH Sarietan, erretiroa hartu aurreko azken txanpan. Ikastetxearen sorreran parte hartu zuen Egañak 1985. urte inguruan, eta gero, 16 urtez izan zen bertako zuzendaria.

☐ Juan Mari Uranga hil zen, urte askoan Elgoibarko eta Mendaroko bake epailea izandakoa. Euskal Herriko Bake Epaileen Elkarteko zuzendaria ere izan zen bi alditan. 51 urte zituela hil zen.



TANTAKA

Aita agirre, 5
Tel: 943 030 736

- ☘ Pintxoak
- ☘ Entsaladak
- ☘ Ogitarkeoak
- ☘ Plater konbinatuak
- ☘ Razioak

Ondo pasa eguberrietan!

Ilarginleku
Jurdes

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10
943 256 105

NUBEA PRODUKTU ORGANIKOEN TRATAMENDUAK:

- ◆ Detozinantea.
- ◆ Ilea ez erortzekoa.
- ◆ Sahiari aurre egitekoa.
- ◆ Ilea koipetsuaren aurkakoa.
- ◆ Buru-azal sensibleentzako.

TRATAMENDUA + GARBIKETA + ORRAZKERA

2018 ezin hobe hasteko!

Gabonetan oparitu fotodepilazioa; eskatu zure opari txartela eta lehenengo aldian doan depilatu ahalko dituzu besapeak



□ Elgoibarko Izarrak antolatuta, Ekigain jaia ospatu zuten hainbat elgoibartarrek Sallobenten, udari ongi-etorria emateko.



□ Jasone Osorok *Eskularru Beltzak* liburu bilduma aurkeztu zuen. Gazteentzako bilduma da. Boxeoa du oinarrian, baina muturra txikitzeko kirola baino gehiago, boxeoa bizi jarrerara; hau da, kolpeak jaso ostean jaitzen ikasi eta aurrera egiteko gaitasuna.

□ Ander Mujikak eta Paula Herasek irabazi zuten Gaztelekuko eta Ludotekako logotipo lehiaketa. 10 urte bete dituzte bi udal zerbitzuek eta logotipoak berri zizuten. 500 euroko sari bana eskuratu zuten.





□ Jon Basurtok ordezkatu zuen Antton Irazo C.D. Elgoibarko lehendakari karguan. Arazo pertsonalengatik utzi zuen Irazok kargua.

□ Debabarrena areto futbol taldea desagertu egin zen, arazo ekonomikoengatik. 28 urteko ibilbidea amaitu zuen klubak denboraldi amaieran.



□ Gazte Asanbladako kideek bota zuten Santana jaiei hasiera emateko txupinazoa.



NAVA
INPRIMATEGIA

Santa Ana, 44 - ☒ 208

Telf. eta Faxe: 943 744 451

E-mail: nava@euskalnet.net

20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Gabon zoriontsuak!



□ Napoka Iriak azken kontzertua eskaini zuen uz-tailaren 7an Eibarko Coliseo antzokian. Hamabi urteko ibilbidea bukatutzat eman zuten, beraz, Ander Mujikak eta Miren Narbairzak.



□ 20 urteren ostean Ehun Kilo taldea eszenatokitara itzuli zen. Mutrikun eskaini zuen estreinako kontzertua, eta ondoren, Mendaroko Santa Ana jaietan eta Elgoibarko sanbartolomeetan ere jo zuten.





□ Ana Salegiren kartela aukeratu zuten sanbartolomeetako egitarauaren azalerako. Hamalau lan aurkeztu zituzten guztira.



□ C.D. Elgoibarrek bota zuen jaiiei hasiera emateko txupinazoa. 100 urte bete ditu aurten klubak eta urte osoan zehar egin dituzte mendeurrena ospatzeko ekitaldiak.



□ *Ezetzta, ezetzta da* kanpainarekin bat egin zuten sanbartolomeetan Elgoibarko Udalak eta Maalako Jai Batzordeak. Indarkeria matxistaren aurkako jarrera garbia hartu zuten jaietan.





PNEUMAX, S.A.

AUTOMATIZAZIO
NEUMATIKORAKO
OSAGAIAK

Olaso, 15, Pab. 52-53-54 - 20870 ELGOIBAR
 Teléfono: 94374 41 44- 943 74 41 74
 Telefax: 943 74 40 76
 E-Mail: pneumax@pneumax.es
 Web: www.pneumax.es

MEMBRO DE




Dispositivos y
neumática





**Gabon zoriontsuak
herritar guztioi!**



DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.*

Kalebarren plaza, 2 – 20870 ELGOIBAR
943 742 731
udaleuskaltea.elgoibar@debabe.eus

**Eguberri zoriontsua
eta urte berri on!**



Meka 
Lanbide Eskola

Zorionak eta Urte Berri On!

Merry Christmas and Happy New Year!

2018



█ Ardi Latxaren Gazta Lehiaketa entzutetsua jokatu zuten urriaren 7an Ordizian, Euskal Jaien barruan, eta Elgoibarko Mausitxa baserriak bigarren saria eskuratu zuten, bigarren urtez jarraian. Mausitxak hiru alditan irabazi du Ordiziako txapelketa (2005, 2007 eta 2009) eta, horrez gainera, 2005etik 2014ra artean Ordiziako gazta txapelketa irabazi zuten gaztagileek parte hartu zuten Ordizia Txapelkun Saria ere irabazi zuten 2014an.

█ 43 urteko elgoibartar bat 30 metroko altueratik erori zen Leongo Bustil mendiaeren gailurrean (2.031 metro), eta Guardia Zibila mendiko taldeak erreskatatu zuten helikopteroz. Gorputz osoan jaso zituen kolpeak; handiena, baina, bizkarrean. Hala, zauritua helikopteroan atera behar izan zuten menditik.

█ Nesken artean futbola sustatzeko Futbol Campusa antolatu zuten Realak eta C.D. Elgoibarrek elkarlanean. Realeko arduradunek gidatutako entrenamendu saioetan 8 eta 14 urte bitarteko 50 neskek parte hartu zuten.



Jasones
Zuzeneko Garbitzaileak

Jai zoriontsuak eta urte berri on!

Tel. 943 53 17 45
jasones@jasonesg.com
www.jasonesg.com

INPRIMATEGIA

San Ignazio, 1
ELGOIBAR

BM
bronymac

Termoplastiko eta Korposioen
Mekanizazio Lanak
Metal Ez-Ferrokak

@BronymacSA

50
urteurrena

50 urte
zuekin bidaiatzen.
Jai zoriontsuak!!

Pol. Ind. Igartuaidea, 27
20850 Mendaro - Tel. 943 741 677
www.dariobus.com - clientes@dariobus.com



Memoria historikoaren aldeko Elgoibar 1936 taldeak eta Taupada antzerki taldeak Frankismoaren biktimak oroitzeko hilabetea egin zuten iraila Elgoibarren. Antolatutako ekintzen barruan, Frankismoaren biktimak omentzeko ekitaldia egin zuten Olasoko hilerrian, Duintasunaren Kolunbarioaren ondoan, hain justu ere otsailean hobi komunetan zeuden 27 pertsonaren gorpuzkinak hobiratu zituzten lekuan.

Ane Beitia Elgoibarko alkatetik eta Denis Itxaso Gipuzkoako Kultura diputatuak lankidetzara hitzarmena sinatu zuten Aita Agirre eraikina berrietzeko. Aldundiak 510.000 euro jarriko ditu eraikina finkatu, berritu eta zaharberritzeko obrak egiteko. Ondo bidean, obrak 2019rako bukatuko dituzte.



Dringilin Dron

Gure esku artean dugu
 Denon quetuha eguneh
 Telahuh zuri-zuri eta
 Gutan doetan quuneh
 Zuhaitzez, jaiotzez eta arjiz
 Opandu eba huttuneh
 Denok balera arjiz ditzagun
 Herriaren alde luneh
 Gaitasuna arizematen da
 Herriaren ghoetan
 Gabonak inietar daukela
 oepatu topaketetan
 Itzayn eta Jamilarehin
 Dringilin dron qai honetan
 Kontuz ibili dringilarehin,
 Ondo pasatu jasetan

Daluz: Badira hitz arte
 Igitas: Mialen Itza (2016/17)

2017
 Elgoibar BHI



Janire Rodriguez ZA



Elgoibarko Musika Eskolako zortzi saxofoi jotzailek Bilboko Guggenheim museoaren 20. urteurreneko *Chasmata* ikuskizun berezian parte hartu zuten urriaren 9an. Artea eta zientzia modu berri batean uztartu zituen *Chasmatak*.

Urriaren 6an kaleratu zuen Uxue Alberdik *Jenisjoplin* nobela, eta urriaren 19an aurkeztu zuen liburua Elgoibarren. Pitxintxu dendan egin zuten aurkezpena. Nagore Vargas da nobelako protagonista eta kontalaria, baldintza makurrei aurre eginez zaildutako neska, gaztaroa intentsitate handiz bizi izan dutenen grinarekin borrokatzera ohitutakoa.



Eusko Jaurlaritzako agintariek Unceta enpresara eginiko bisita aprobetxatuz, instalazioetako batzuk handituko dituela aditzera eman zuten Unceta taldeko arduradunek. Hala, Elgoibarko plantan 400.000 euroko inbertsioa egingo dute. Horrek neurketa-zerbitzuetako arloa handitzea ekarriko du; izatez, 300 m²-ko espazioa gaituko du proiektu berriak diseinatzeko, garatzeko eta ezartzeko.



Hiri eta Eskualdeen Europar Astearen parte hartu zuen Bruselan Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) alkateen berrikuntza batzordeak, kontaktuak lortzeko eta Europako esparruko ereduak proiektuen berri izateko, eta batzorde horretako kide da Elgoibarko alkate Ane Beitia. Alkateok Bruselan izan ziren urriaren 9tik 12ra bitartean egin zuten Hiri eta Eskualdeen Europar Astearen.



ETXE-TAR



San Antolin 3 • 20870 Elgoibar • Tel.943 740 600 • Faxe 943 743 472
 etxetar@etxe-tar.com • www.etxe-tar.com



Maite Maiorak Nazioarteko Mendi Lasterketen Federazioak (ISF) antolatzen dituen mendi lasterketen munduko sailkapen bateratuan lehen postua eskuratu zuen. Denboraldiko mendi lasterkari osoena, -distantzia motz, ertain zein luzeetan hobekien moldatzen dena- saritzen du titulu honek. Maiorak Zegama-Aizkorri (42 kilometro), Livignon (34 kilometro, Italia), Royal Gran Paradison (52 kilometro), Tromson (57 kilometro) eta Ultra Pirineun (110 kilometro) lortutako garaipenei esker eskuratu zuen lehen postua (1051).



Uxue Alberdi bertsolari eta idazleak Mari Luz Esteban antropologoari egindako zuzeneko elkarrizketarekin hasi zuten urriaren 4an *Euskalgintza eta feminismoa eskutik helduta* zikloa, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udaleko Euskara eta Berdintasun Sailek elkarlanean antolatutako zikloa.



Iker Eskibelek (Eskoriatza, 1993) hiru segunduan ondu zuen iaz berak ezarritako errekorra. San Pedroko Igoeran. Iaz bigarren segunduan ondu zuen Iñigo Larizek 2002. urtetik zeukan marka, eta aurten goian hiru segunduan jan zizkion iazko denborari.

GABON ZORIONTSUAK!


Elgoibarko Haurreskola
943 742 141

Haurreskolak

www.haurreskolak.net



□ Gure Baloak saria jaso zuen Felix Etxeberria *Parapanek* ibilbide oso baten aitortza gisa, azaroaren 9an Mendaroko San Agustin kultugunean egin zuten ekitaldian. Epaimahaiak Etxeberriaren "ekimena eta izaera ekin-tzailea" nabarmendu zituen, eta baita haren "zintotasuna, ausardia eta ekimen berriei egiteko ilusia" ere. Felixek berak esker on hitzak izan zituen ibilbide osoan aliatu izan dituen lagunentzat, eta bereziki, Loli Canales emaztearentzat.



□ Txomin Mujikak azken kontzertua gidatu zuen Udal Musika Bandako zuzendari gisa azaroaren 25ean. Ia 50 urtean Udal Musika Bandako kide izan ostean, erretiroa hartu zuen. Bonbardino, tronboia eta baxua jo izan ditu bandan, eta horrez gain, txistua eta dultzaina ere jotzen ditu.



□ Emakumeak, zahar-tzaroa eta indarkeria matxistak: ikusten ez dena ikustaraztea izeneko jardunaldia antolatu zuen Elgoibarko Udaleko Berdintasun eta Ongizate sailek azaroaren 22an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin.



Makina Bereziak

Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
 Tel.: 943 744 466 · Faxa: 943 53 14 74
 ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net





Iban Muruak erabateko nagusitasuna erakutsi zuen Karakateko 24. igoeran. 26 minutu eta 17 segundotan osatu zuen Kalegoen plazako frontoiko frontisetik Karakateko tontorrera arteko bidea (742 m). Hala, 35 segundotan ondu zuen berak iaz ezarri zuen errekorra. Emakumezkoetan, Ainhoa Lendinez elgoibartarrak irabazi zuen.



Hainbat ekintza antolatu zituen GARE Irratizaleen taldeak, taldearen 25. urteurrena ospatzeko. Herriko hainbat irratizalek GARE elkartearen sortu zuten 1992an, euren zaletasunari buruzko esperientziak partekatu eta ordura arte bakoitzak bere aldetik egiten zuena taldean egiteko.



Sekula ez beste jende gerturatu zen azaroaren 17an Mendaron odola ematera, 83 lagun, eta horietatik bederatzik estreinakoz. 1999. urtean, egun bakar batean, 75 lagunek eman zuten odola Mendaron, eta egun hartakoa gainditzeko erronka jarri zuten Odol Emaleen Elkarteak, *Baietz 76!* kanpaina abiatuta.

Elgoibarren bizi, erosi herriak irabazi

TXANKAKUA
ELEGIARRKO HERRIETARIEK

EUSKO JAULIKERITZA GOBIERNO BASCO

Gabon zoriontsuak!



□ Taupada antzerki taldeak 40 urte egin zituen. 1977ko udazkenean sortu zuten taldea, kultura eta euskara sustatzeko helburuarekin. 40 urte egin dituzte oholtzan, euskaraz. Bi obra taularatu zituzten abenduan, *Bihotz txatalak* eta *Ikasgaia*.



□ Euskara 365 taldeak *Euskaraldia* proiektua aurkeztu zuen abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, hain zuzen ere. Egitasmoaren barruan, 11 egun euskaraz bizitzeko konpromisoa hartuko dute 2018an, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, eta euskararen alde egotetik alde egitera pasatuko dira. *Belarriprest* eta *Ahobizi* figurak aurkeztu zituzten. *Beitxu*, *beitxu* abestiarekin eta koloretako globoak puztuz bukatu zen aurkezpena.



□ 7.895 kilo janari eta 4.965 euro bildu zituen Gizarteratze Mahaia egin zuen janari bilketan. Abenduko lehen asteburuan egin zuten janari bilketa herriko merkatal zentro handietan.



□ Nuala, ezintasunen bat duten gurasoen elkarte, aurkeztu genuen **BARREN** astekarrian. Abenduaren 3an izan zen ezintasunen bat dutenen eguna, eta horren harira, elkarreko kideak batu genituen **BARRENERAKO**.




□ Gizon bat erreskatatu zuten San Roke kalean su hartu zuen etxe batetik. San Roke kaleko 26. zenbakian etxe batek su hartu zuen, eta suhiltzaileek bosgarren solairuko balkoi batean babes hartu zuen gizonezko bat atera behar izan zuten.



□ Elgoibarko Izarrak Bazkideen Urteko Batzar Orokorra egin zuen abenduaren 12an, eta beste gai batzuen artean 2016ko eta 2017ko memoria ekonomikoa eta 2018rako ildo nagusiak aurkeztu zituzten ardura-dunek. Aurrera begira, Zuzendaritza Batzordea berritzeko asmoa ere agertu zuten.

□ Abenduaren 12an greba eguna izan zen Hezkuntza Publikoan, eta Elgoibarko eta Mendaroko ikastetxeetan jarraipen zabala izan zuen. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentroetan izan zuen grebak jarraipen handiena.





GABILONDO

INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose M^a Azpeleta Iturricastillo

HIGIEZINEN SEKTOREKO PERITU JUDIZIALA

Gabon zoriontsuak!

www.inmobiliariagabilondo.es

SAN FRANZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR - Tel: 943 74 44 67



*"Gau hartan ametsak
zain zeuden, ilara batean.
Ametsak ameslari bila,
amestuak izan nahian".*
Eduardo Galeano, Helenaren ametsak

ehbildu




urkotronik


OSTALARITZAN ETA
VENDING-EAN ADITUAK.
1983 GEROZTIK.



**ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!**

www.urkotronik.com

943 203 112 / 902 127 137
urkotronik@urkotronik.com





▶ AINHOA LODOSO EITB MARATOIAREN KOORDINATZAILEA

In<victus elkartasun-kanpaina abiatu du EITBk. Ez da kontu berria. Urtero antolatzen du Euskal Irrati Telebista publikoak elkartasun-saioa, gaixotasun larrien ikerketarako dirua biltzeko. Aurten, ictus gaixotasuna ikertzera bideratuko dute bildutako dirua. Ainhoa Lodoso elgoibartarra da EITB maratoiaren koordinatzailea azkeneko hamalau urteotan, eta berak eman dizkigu elkartasun-kanpaina honen inguruko azalpenak.

- AINARA ARGOITIA -

“Oso garrantzitsua da, une batez bada ere, sufritzen ari direnen azalean jartzea”

◆ Noiztik diharduzu zuk egiteko honetan?

EiTBko Programa Zuzendaritzaren barruan arlo jakin baten ardura izan dut nik azkeneko urteotan. Aktualitatezko programen ardura eman zidaten lehendabizi, eta gero, berrantolaketa baten ondoren, entretenimenduzko programazioaren ardura hartzea egokitu zitzaidan. Dena den, etxe honek hasiera-hasieratik izan du EITB maratoia deitzen den elkartasun-kanpaina hau, abenduro egiten dena, eta programen sailetik kudeatzen dena. Aktualitatezko programen ardura hartu nuen heldu nion nik egiteko honi, orain 14 urte.

◆ Zeinek eta nola erabakitzen du zertarako eskatuko den dirua?

Elkartasun-kanpaina hau beti izan da osasunarekin lotutako zerbaiten alde. Normalean, gaixotasun larriak ikertzeko baten da dirua, heriotza eragiten duten gaixotasunak ikertzeko. Hainbat kontu hartzen dira aintzat, eragina, larritasuna, gaitz jakin horrek duen oihartzuna edo etxe honek eta gizarteak oro har kolektibo horrekiko duen erantzukizuna. Gaixotasun arraroak, adibidez, populazioaren oso parte txiki batek sufritzen ditu, baina guk sentitzen dugu erantzukizun soziala jende horrekin atentzio handiagoz jokatzeko. Zer gai landu eta dirua zertarako eskatu erabaki aurretik kanpora ere begiratzen dugu, bestalde. Katalunian ere badute *La Marató* saioa Tv3 kate publikoan eta han landu dituzten gaiei ere erreparatzen

diegu, eta era berean, Osasun Sailarekin ere hitz egiten dugu, momentu horretan inzidentzia handieneko gaixotasunak zeintzuk diren jakiteko eta haien inguruko informazioa biltzeko. Horrez guztiaz gain, ikerketa-lerroak ere aztertzen dira, egiaztatzeke guk aukeratu dugun gai horretan badela ikerketa-lerroren bat zabalik eta baduela aurrera egiteko aukerarik. Eta esan dugun horretarako guztirako, informazio guzti hori jaso eta konpartitzeke, hartueman zuzena daukagu Eusko Jaurlaritzako jendearekin.

◆ Batzen den dirutzak zer bide egiten du gero?

Euskadin badago fundazio bat Euskal Herriko sare publiko guztian existitzen diren ikerlan eta ikerlari guztien lana ku-

deatzeko ardua duena. Batutako dirua fundazio horri ematen diogu guk dohaintzan eta fundazio horrek lehiaketa publiko ateratzen du gero. Boletín ofizialean publiko egiten da hori, eta lehiaketa publiko guztiek jarraitzen duten prozesu bera egiten du. Boletín publikoan jasotzen da, aurkezteko epe bat egoten da, ekarpenak egiteko beste bat, helegiteak aurkezteko epea dator gero... eta eginbeharreko guztiak eginda, ebaluazio fasea hasten da. Aditu talde batek proiektu guztiak baloratzen ditu banan-banan, eta egingarri diren aztertzen dute. Aurrera egiten dutenen artean onenak sailkatzen dituzte gero, eta dagoen diruaren arabera ikusten da zenbat dirurekin lagundu dakioken proiektu bakoitzari, dirutza batzen dugun arren, ikerketarako diru hori gauza gutxi delako.

♦ **Euskadi Irratian entzun genizun esaten urtebete inguru behar dela horretarako guztirako.**

Bai, prozesu luzea da, edozein deialdi publikok bete behar dituen betekizun guztiak bete behar dituelako. Duela urte batzuk, gainera, fundazioen inguruko lege bat aldatu zuten, eta horrek ere ekarri du prozesua luzatzea, agentzia batek ikuskatu behar dituelako proiektu guztiak orain.

♦ **Nola ari dira erantzuten ikus-entzu-leak?**

Erantzuna itzela ari da izaten. Ez da biltzen den dirua bakarrik. Herritarrek telefonoa hartu eta zer egin behar duten galdezka deitza bera handia da. Pauso hori ematea bera da izugarria. Ez da horrenbeste jendeak zenbat dirurekin laguntzen duen egitasmoa. Maratoira deitzen duen jende hori guztia jarri da une batez sufritzen ari diren besteen azalean, enpatizatu du gaixoeekin eta haien etxekoekin, eta hori oso kontuan hartzekoa dela iruditzen zait. 5 euro edo 500 euro eman, berdin-berdin eskertzen dugu guk, garrantzitsuagoa iruditzen zaigulako beste hori: jendeak enpatizatzea gaixoeekin eta ulertzea zein beharrezkoa den ikertzea. Eskuzabaltasun eta elkartasun-keinu hori da guk gehien estimatzen duguna. Zenbat

eta diru gehiago batu beti izango da hobeto, jakina, baina hori baino garrantzitsuagoa da elkartasun-keinu hori egiteko prest daudenak gero eta gehiago izatea. Iruditzen zait elkartasuna balioan jarri beharreko kontua dela gure gizarte gero eta indibidualizatuago honetan. Urteko sasoi honetan elkartasun-kanpaina asko egiten dira, baina hala ere, badago jende multzo bat urtero-urtero deitzen duena eta eskertzekoa da. Askok, gainera, sekulako ahalegina egiten dute, gutxirekin bizi direlako, eta pentsa zer den pentsio txiki batekin bizi denak telefonoa hartu eta diru-ekarpena egiteko deitza.

“Maratoian batzen dena dirutza da, baina ikerkuntzak behar duen guztirako ekarpen txikia da gurea”

♦ **Zenbat jende inguru mugitzen du maratoiak?**

Egunean bertan 100 lagun inguru airtzen dira telefono-deiei erantzuten, eta guztira, 4.200 bat dei jasotzen ditugu. Duela hiru urtetik, gainera, diru-ekarpena online egiteko aukera ere badago www.eitb.eus webgunean sartuta. Eta gero eta gehiago dira bide horren bidez ekarpena egiten dutenak.

♦ **Hamalau urte daramatzazu proiektu honen arduran. Denbora horretan igarri duzu aldaketarik herritarren erantzunean?**

EITB maratoiaren kasuan esango nuke badagoela jende bat sekula hutsik egiten ez duena. Nik ikusten dudana da Euskal Herrian milaka elkartasun-kanpaina egiten direla eta jendeak beti erantzuten duela. Egon dira urte batzuk okerragoak, dela krisiagatik edo dela ez dugulako lortu jen-

dearengana iristea, izan gaiagatik bera-gatik edo sentsibilizazio kanpainen ez dutelako izan guk uste bezainbesteko eraginik, baina esango nuke erantzuna beti izan dela ona. 3.000 lagun baino gehiago mobilizatzen dira urtero eta oso kontuan hartzeko kopurua dela iruditzen zait.

♦ **Anekdotarik edo hunkitu zaituen dei-rik gogoratzen al duzu?**


Gaur bertan Bartzelonako ikusle batek deitu digu joan den asteartean *El programa de Claudio* saioa ikusten ari zela gertatu zitzaiona kontatzeko. Ictus-ari buruz hitz egiten ari ziren eta ictus-ak emanez gero, zer egin behar den azaltzen. Une hartan aita ondoezik jarri zitzaion, eta gure saioan entzundakoari esker identifikatu zuen Ictus-ak eman ziola. Berehala jo zuen ospitalera eta horri esker bizi da aita. Eskerrak emateko idatzi digu.

♦ **Ez da beharbada zuk erantzun beharreko kontua, baina kritikak ere izan dira EITB maratoiaren harira. Gure zergekin egin beharreko zerbait gure diru-ekarpenekin egiten dela salatu dute zenbaitzuk. Esan nahi al duzu zerbait?**

Hori ez da erabat zuzena. Ikerketa egiten da gaur ere gure zergekin eta jarraitu behar da ikertzen gainera, guk ordaintzen ditugun zergek horretarako izan beharko luketelako: ikerkuntzan inbertitzeko eta osasun-sistema osoa mantentzeko. Ikerkuntzaren mundua ezagutzen duen edonork badaki, baina ikerkuntza hondarrez egindako mendi handi baten pare dela eta miloika hondar-ale behar direla. Guk jartzen dugun hau guztia hondar-ale bat baino ez da. Fokoa zuzendu behar dugu beraz: maratoian batzen dena diru asko da, baina ikerkuntzak behar duen guztirako gurea oso ekarpen txikia da. Informazioa ematea eta ikerkuntzaren garrantziaz ohartaztea dagokigu guri, honen onura denok jasotzen dugulako eta oso garrantzitsua iruditzen zaigulako une batez bada ere sufritzen ari direnen azalean jartzea. Hori lortzen badugu, ni neu gustura, hori delako elkartasuna, enpatia hori agertzea.



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112



Arantzazu Iriondo Arizmendi

2017ko abenduaren 18an hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Daniela Charles Gutierrez

2016ko abenduaren 23an hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduaren 23an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



ETXEBERRIA TANATORIOA



943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Maialen Lujanbio Euskal Herriko Bertsolari txapelduna Elgoibarren izango da abenduaren 28an

Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi eta hamar egunera Elgoibarren ariko da kantuan Maialen Lujanbio txapelduna, Elgoibarko Izarrak antolatutako Eguberrietako bertso jaialdian. Lujanbiorekin batera, orain dela lau urteko txapelduna, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Igor Elortza eta Miren Artetxe igoko dira oholtzara. Gai jartzaile lanak Uxue Alberdi elgoibartarrak egingo ditu. Bertso saioa kiroldegian izango da, abenduaren 28an, 22:00etatik aurrera. Datorren astean ere egongo da sarrerak erosteko aukera, 26tik 28ra bitartean, Pitxintxun, goizez. Sobratzen direnak kiroldegiko lehiatilan jarriko dituzte salgai bertso saio egunean bertan.



Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzainak jarri du martxan jaiotza mekanikoa



Eguaztenez inauguratu zuten Elgojajotza taldeko kideek parrokiako jaiotza mekanikoa, eta atzotik zabalik dago herritarrentzat. Aurten Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzainak bedekatu eta jarri zuen martxan jaiotza. Laz ezagutu zuen gotzainak Elgoibarko jaiotza mekanikoa Parrokiaren 300. urteurrenaren harira egindako bisitan, eta Elgoibarko "altxor" honekin "liluratuta" geratu zela adierazi zuen. Elizbarruti osoan Elgoibarko jaiotza mekanikoa ezagutzera emateko ahalegina egingo duela gaineratu zuen. Aurtengo jaiotzan 50 piezatik gora egongo dira mugimenduan. Urtetik urtera, jaiotza berritzen eta hobetzen ahalegintzen dira Elgojajotzako kideak, eta aurtengo berrikuntzen artean posada eta ibai ertzeko etxolak izan dira. Laz, 14.718 bisita jaso zituen jaiotzak. San Anton egunera arte egongo da ikusgai aurten ere, ondorengo orduetan: Asteleheneetik ostiralera, 17:30etik 20:30era, eta zapatu eta jai egunetan, berriz, 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.

Udal Musika Bandak kontzertu berezia eskainiko du Eguberrietan

Udal Musika Bandak Gabonetako kontzertua eskainiko du domekan Herriko Antzokian, 12:30etik aurrera. Gorka Mujika izango da zuzendaria, eta besteak beste, Hator Hator Gabon kanta joko dute. Iluntzean, berriz, kalejira egingo dute 18:45etik aurrera, eta San Lazaro egoitza bisitatuko dute Gabon kantak eskaintzeko. Txomin Mujikak erretiroa hartu zuen Santa Zezilia egunean, eta Jose Antonio Osorok ere oraintxe utziko ditu bandako lanak. 1957an sartu zen bandan, eta 60 urteren ostean amaituko ditu bere zereginak. Zuzendari gisa erretiroa hartu zuenetik orain arte barne lanak egiten jarraitu du.

'Alicia en el país de las maravillas' balleta emango dute gaur Herriko Antzokian, aurrez grabatutako formatoan

Elgoibarko Kultura Sailak antolatuta, *Alicia en el país de las maravillas* balleta ikusteko aukera izango da gaur iluntzean Elgoibarren, aurrez grabatutako formatoan. Lewis Carroll idazlearen liburu ezaguna Christopher Wheeldon zuzendariak moldatu zuen balleterako. 2011n estreinatu zuten, kolore eta magiaz beteriko koreografia batekin. Joby Talboten partiturak soinu garaikideak eta melodia tradizionalak uztartzen ditu. 20:30ean hasiko da saioa eta ia bi orduko iraupena izango du. Sarrerak 10 euro balio ditu (Gazte txartelarekin, 7 euro).



Olentzero eta Mari Domingi domekan etorriko dira opariak banatzera



Olentzero eta Mari Domingi domekan etorriko dira Elgoibarrera eta Mendarora opariak banatzera. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Elgoibarrera goizez iritsiko dira. 11:00etan hasiko da kalejira Kalegoen plazan, eta herri osoa zeharkatu ostean, elizako arkupeetan jasoko dituzte umeen gutunak. Elgoibarko lanak amaitu ondoren, Mendarorako bidea hartuko dute. Ameikutz musika eskolak antolatuta, 16:30ean irtengo dira Moxuanetik. Ondoren, Gargartzara, Mendarozabalera eta Azpilgoetara joango dira. Udaletxeko balkoitik agurtuko dituzte herritarrek, eta udaletxe azpian jasoko dituzte umeen gutunak.

Ekialdeko Errege Magoak urtarrilaren 5ean iritsiko dira Elgoibar eta Mendarora



Ekialdeko Errege Magoen desfilea urtarrilaren 5ean izango da, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Elgoibarren, Parrokiako Katekesiak antolatzen du ekitaldia. 17:00etatik aurrera jaiotza biziduna jarriko dute parrokia atarian, eta 18:00ak aldera iritsiko dira Errege Magoak Santa Klara auzotik. Herri osoa zeharkatu eta Maalara iristean, San Lazaro egoitzan geldialdi berezia egingo dute, hango egoiliarrei opariak banatzeko. Ondoren, Kalegoen plazara joango dira, umeen gutunak jasotzeko. Mendaron Arno Guraso Elkarteak antolatzen du desfilea. Azpilgoetan hasiko da Errege Magoen desfilea, eta herria zeharkatu ondoren, Ikastolako patioan jasoko dituzte umeen gutunak.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia, urtarrilaren 2an

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak urtarrilaren 2an iritsiko dira Elgoibarrera, *Borobilean* ikuskizuna aurkeztera. Herriko Antzokian taularatu dute obra, eta azken urteetan bezala, bi saio eskainiko dituzte aurten ere, lehenengoa 16:30ean eta bigarrena, 18:30ean. Nahi duenak oraindik eskuragarri ditu sarrerak Kutxabanken edo Herriko Antzokiko lehiatilan, zine emanaldiak hasi baino ordu erdi lehenago.

Zuhaitz Gurrutxagak emango ditu urte amaierako kanpaikadak ETB1en, zuzenean

Aurten Mundakatik emango dituzte ETB1eko urte zaharreko kanpaikadak zuzenean, eta iaz bezala, Zuhaitz Gurrutxaga izango da aurkezleetako bat. *Herri Txiki*, *infernu handi* saioan lagun duen Mikel Pagadirekin eta Sara Gandarearekin batera emango ditu.

Sun magoa eta Gabon Parkea, Mendaron

Mendaroko Udalak antolatuta, Disney Channel telebista kateko Sun magoak magia ikuskizuna eskainiko du Mendaron, abenduaren 27an. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, eta bi saio eskainiko ditu, bata, 17:00etan eta bestea, 19:00etan. Sarrerak aurrez erosteko aukera dago udaletxean bertan edo Morroskilon, bost euroan. Bestalde, gabon parkea jarriko dute umeentzat, abenduaren 28an eta urtarrilaren 2an, Mendaroko Ikastolako jolastokian. Goizez, 11:00etatik 14:30era eta arratsaldean, 16:30etik 19:00etara.

Bihar jarriko dituzte salgai urtarrileko kultur ekitaldietarako sarrerak

Urtarrilean Elgoibarko Herriko Antzokian eskainiko dituzten hiru ikuskizunetarako sarrerak jarriko dituzte salgai bihar. 19:15etik aurrera, Herriko Antzokiko lehiatilan eta kutxabank.eus web orrialdean erosi ahal izango dira, beraz, ondorengo ekitaldietarako sarrerak:

- **Keu Agirretxea eta Jon Gurrutxagaren kontzertua.** (Urtarrilak 19, 20:30ean): Apirilean *Izanak* deituriko lana argitaratu zuten eta, harrezkero, biran izan dira bikote formatuan Euskal Herrian barrena. Birako azken kontzertua izango da Elgoibarkoa. Sarrerak 5 euroan salduko dituzte.

- **Goazen 4.0 antzerki musikala.** (Urtarrilak 21, 12:30ean eta 16:30ean): Umorezko antzerki musikala da. Telebistan ikusten diren Basakabi udalekuko istorio eta gorabeherak la-



burtu eta moldatuko dituen ikuskizuna. Sarrerak: haurrenak 3,5 euro eta nagusienak 5 euro.

- **La Rosa del Azafrán zarzuela.** (Urtarrilak 26, 20:30ean): Gizarte klase ezberdinetako amoranteak dira protagonistak, Sagarrio etxeoandrea eta bere menpe lan egiten duen Juan Pedro zoritxarreko nekazaria. Ikuskizun honetarako sarrerak 15 euroan salduko dituzte (8 euro Gazte txartela dutenek)

Fractality taldearen kontzertua gaur, sotoan

Sinuosek antolatuta, Fractality taldeak kontzertua eskainiko du gaur ganean, Kultur Etxeko sotoan. 2012an hasi zen taldea lehen urratsak ematen. Gaur egun bi elgoibartarrek jotzen dute gitarra talde horretan: Iker Diegok eta Patxi Zabaletak. Gainerako taldekideak hauek dira: Oskar (baxua), Aure (bateria) eta Berto (ahotsa). Death metal klasikoak dute gustoko taldekideek; Suffocation, Cannibal Corpse, Obituary... 23:00etan hasiko da kontzertua.



Euskararen aldeko lehiaketako irabazleak eman ditu jakitera Danobat Groupek



Danobat Groupek *Euskara aldean, erabili lanean* lelopean antolatu du euskararen aldeko aurtengo lehiaketa. Kooperatibak lantegiak dituen herrietako lagunek parte hartu zezaketen eta Elgoibarko Esther Lizarriturri eta Saioa Arrieta azkoitiarra izan dira irabazleak. Euskal Herriko nekazaritza-etxe batean bi lagunentzako aste-buru bateko egonaldia eskuratu dute opari. Kooperatibako arduradunek zehaztu dutenez, parte hartze handia izan du lehiaketak.

'Jira bueltan' liburu-DVDa Elgoibarren ere eskuratu daiteke

Durangoko azokan aurkeztu zuen Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarteak *Jira Bueltan*; betiko 50 kanta eta jolas liburuxka-DVDa. Elgoibarko Herri Eskolan eta Ikastolan ere banatu diete LH1eko ikasleei, baina nahi duenak Pitxintxun ere eskuratu dezake. Bestela, ahotsak@ahotsak.com helbidera idatzita ere eskatu daiteke.





autocares Revert

Gabon zoriontsuak! **Kalitatea eta zerbitzu ona, eskura**
 Avd. P. Muguriza, 29 - 5º A - 20670 ELGOIBAR Gipuzkoa
 Tel: 943 741 863 - Fax: 943 631 386
 autocaresrevert@gmail.com
 www.autocaresrevert.com

ESARRI AUTOAK ZERBITZUA
 MARKA GUZTIAK

943 741 480
 Aitor: 606 975 730
 Anton: 680 356 573
 Faxa: 943 031 576 Olaso, 17 - Elgoibar

IRAZABAL
 clínica dental

Familiaren Osasuna
 Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako
 Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Ainhoa Zulueta
 Odontóloga
 Andelak orotik ostiratarerik
 8:00 orotik 22:00 orotik
 Zuzendaria
 10:00 orotik 14:00 orotik

Facebooken: Clínica Dental Irazabal Twitterren: @Clinicairazabal

FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantza ekonomiko handiak eta finantziazio egin hobek. GALDETU

IRAZABAL
 clínica dental
 Julián Etxeberriá, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
 Tel: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

BIZITZAREN ZEHARKAKO FORMAKUNTZA
 DOHAINEKO IKASTAROAK
 (Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzarekin)

- ★ WHATSAPP ETA INTERNET pertsona helduentzat (50 h).
- ★ SARE SOZIALAK ETA CIBER-SEGURTASUNA. (15 h)
- ★ ESPAÑOL, erdi maila (60h).
- ★ EUSKERA, oinarritzko maila (60h).
- ★ GENERO INDARKERIA (18h).
- ★ ETXEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA LEHEN SOROSPENAK (42h).
- ★ FAKTURAK: IRAKURKETAK ETA ORDAINKETA ERAK (30h)

INFORMA ZAITEZ !
943 748 019



Mendaron haur krosa egingo dute bihar

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak haurren artean kirolerako zaletasuna sustatzeko asmoz antolatzen du Gabonetako Haur Krosa, eta seigarren edizioa antolatu dute zapaturako (abendua 23). Mendarozabalen izango da proba, 18:00etatik aurrera. 2006. urtetik 2012ra bitartean jaiotako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, eta lasterketak adinka egingo dituzte. Iazko haur krosean ehun ume inguruk hartu zuten parte. Izenematea doan izango da, eta lasterketa hasi baino ordu-erdi lehenago egin behar da, irteeran. Parte hartzaile guztiek domina eta gozoki poltsa bana jasoko dituzte bukaeran.

Javier Varona arkulariak irabazi du Gipuzkoako Aretoko Txapelketa

Gipuzkoako arku tiratzaile onenak batu ziren dometan Beasainen, neguko edo indoor txapelketa jokatzeko. 46 arkulari aritu ziren lehian Antzizar kiroldegiko kantxan, Gipuzkoako Federazioak eta Beasaingo Igartza Arku Tiraketa taldeak antolatu zuten txapelketan. Arku tradizionalen Elgoibarko Zarta taldeko Javier Varona gailendu zen, eta Hugo Sierra taldekidea igo zen podiumeko hirugarren kaxoira. Parte hartzaileek hogeita hamarna gezi bota zituzten bi serietan, 18 metrora zegoen diana jotzeko.



Euskadiko eskubaloi selekzio guztiek Elgoibarren prestatuko dute Espainiako txapelketa


Zorioneko dira eskubaloi zaleak, goi mailako eskubaloiak hartuko duelako Elgoibar datozen egunetan. Hasteko, Emakumezkoen Euskadiko Eskubaloi Kopako Lauko Finala jokatuko dute Olaizagan (finalerdiak gaur, barixakua, eta finala zapatuan, 18:00etan). Bera Bera, Zuazo, Kukullaga eta San Adrian taldeak lehiatuko dira Lauko Finalan. Datorren astean, berriz, Euskadiko hamar selekziok Elgoibarren prestatuko dute Galizian jokatuko duten Federazio autonomikoaren Espainiako Eskubaloi Txapelketa. Abenduaren 26an Elgoibarren jokatuko dituzte hainbat partida, IMH (infantilak) eta Olaizaga (kadete eta jubenilak) kiroldegietan, hain zuzen ere. Selektio guztietan daude Sanlo eskubaloi taldeko ordezkariak, eta hortaz horiek gertutik jarraitu eta animoak emateko aukera izango dute zaleek. Gainera, Sanloko seniorretako taldeen aurka ere jokatuko dute Euskadiko jubenilen nesken zein mutilen taldeak.





Eskolarteko eta xake txapelketa azkarreko emaitzak

Eskolarteko xake txapelketa jokatu zuten joan den domekan Elgoibarko Xake Taldeak Juan Mugertza kalean duen egoitzan. Beñat Cearsolok, Asier Arakistainek eta Samuel Egurenk irabazi zuten, 10 urtez azpikoetan, 9 urtez azpikoetan eta 5 urtez azpikoetan, hurrenez hurren. Egun bereko arratsaldean jokatu zuten senior mailako parte hartzaileentzako Xake Txapelketa Azkarra. Jokalari bakoitzak bost minutu zituen partida osorako. David Perez Cela ermuarrak erabateko nagusitasuna erakutsi zuen modalitate honetan eta jokatu zituen partida guztiak, hamahirutik hamahiru, irabazi zituen. Elgoibar Xake Taldeko kide Jabi Muñoz mendarorarrak ere txapelketa aparta osatu zuen, eta hamabi partida irabazi zituen, irabazlearen aurkako partida bakarrik galduz. Elorrioko Aitor Gallastegi sailkatu zen hirugarren postuan, 10,5 punturekin. Juan Manuel Navarro elgoibartarrak Gallastegiren puntu kopuru bera lortu zuen arren, berdinketa hausteko partidari Gallastegi nagusitu zen.



Hodei Ezpeleta mendarorarra gailendu da Euskal Herriko Aizkolari Gazteen txapelketan

18 urtez azpikoen Euskal Herriko Aizkolari txapelketaren finala jokatu zuten Hodei Ezpeletak (Mendaro, 1999) eta Xuban Kañamases nafarrak, joan den abenduaren 16an, Asteasun. Aizkolari bakoitzak sei enbor ebaki behar zituen: 45 ontzako lau enbor eta bi kanaerdiko. Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolariaren semea den Hodeik hamalau minutu eta bederatzigabeko segundoan osatu zuen lana. Minutu erdi gehiago behar izan zuen Kañamasesek. Sufritutako garaipena izan zela esan du Ezpeletak eta urduritasunak jota aritu zela ere bai. Izan ere, Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa jokatu zuten herri kirol jaialdi berean aritu ziren aizkolari gazteak. Gazteekin lehiari aritzetik Euskal Herriko aizkolari onenen aurka indarrak neurtzera pasatu zen Hodei Ezpeleta atzo, 1. Mailako Bizkaiko Aizkolari Txapelketan parte hartu baitzuen. Gainera, aita izan zuen aurkarietako bat txapelketa horretan, Euskal Herriko txapeldun Aitzol Atutzaz gainera.





Gaur bukatu da Nazioarteko Xake Txapelketa

Elgoibarko 27. Maisuen Nazioarteko Xake Txapelketa gaur, hilak 22, amaitu da. Lerro hauek idazterako orduan azken bi jardunaldiak falta ziren jokatzeko eta Henrik Taske alemaniarra eta Carlos Suarez espainiarra zihozten lidergoan, biak 4,5 punturekin. Milos Stankovic serbiarra zuten atzetik 4,5 punturekin. Hamar xakelari aritu dira lehian abenduaren 16an hasi eta 22an bukatu den txapelketan.



Emaitzak

FUTBOLA

Bergara 2 – Haundi 2
 Elgoibar 3 – Aloña Mendi 1 (1. Erreg.)
 Elgoibar 2 – Urola 0 (Oho. Jub.)
 Urola 0 – Elgoibar 2 (Oho. kad.)
 Urki 0 – Elgoibar 4 (1. maila kad.)
 Elgoibar 2 – Arrasate 4 (Oho. inf.)
 Urki 3 – Elgoibar 3 (Inf. txiki)
 Antzuola B 8 – Elgoibar Urdina 11 (Aleb.)
 Bergara A 5 – Elgoibar Berdea 3 (Aleb.)

ESKUBALOIA

Uhartea 29 – Alcorta Elg. 19 (Sen. giz.)
 C.B. Jarrilleras 27 – Lauko Elg. 21 (Sen. emak.)
 Egia 25 – Salento Elg. 42 (Sen. giz.)
 Ereintza 23 – Tecnifuelle 26 (Jub. neska.)
 Deca Elg. 40 – Basauri 25 (Jub. mut.)
 Leizaran 17 – Astigarraga GYS 30 (Jub. neska.)
 Bidasoa Irun 27 – Beristain Elg. 25 (Jub. mut.)
 Ereintza 24 – Arilan Elg. 24 (Kad. neska.)
 Bankoa Elg. 25 – Saieko 24 (Kad. mut.)
 Aiala D 24 – Baxalaos Alkorta 19 (Inf. neska.)
 Modeltek 21 – Aiala B 20 (Inf. neska.)
 Hotel Txarriduna 38 – Bidasoa 8 (Inf. mut.)
 Pneumax Elg. 24 – Leizaran 16 (Inf. neska.)
 Leizaran 20 – Zubacor Elg. 19 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 23
 10:00 Elgoibar – Lengokoak (Inf. Txiki)
 11:30 Elgoibar – Lagun Onak (Oho. inf.)
 13:30 Elgoibar – Urki (Oho. jub.)
 16:00 Elgoibar – Ikasberri (Jub. 1. maila)
 18:00 Elgoibar – Eibartarrak (1. erregionala)

ESKUBALOIA

Barikua, 22 (Olaizaga Kiroldegian)
 17:30 Zuazo – San Adrian (Euskadiko Kopa)
 19:30 Bera Bera – Kukullaga (Euskadiko Kopa)
 Zapatua, 23
 18:00 Emakumezkoen Euskadiko Kopako finala
 Martitzena, 26 (Olaizaga Kiroldegian)
 10:00 Euskadi kad. neska. – Euskadi jub.
 11:45 Euskadi kad. mutilak – Euskadi jub. inf.
 17:00 Euskadi jub. neska. – SANLO senior
 19:00 Euskadi jub. mut. – SANLO senior
 Martitzena, 26 (IMH Kiroldegian)
 10:00 Euskadi inf. neska. – Euskadi kad.
 11:45 Euskadi Inf. mut. – Euskadi kad.

Mendaron bakarrik egingo dute aurten San Silbestreko lasterketa

Mintxeta Atletismo Taldeak jakinarazi duenez, aurten ez dute San Silbestreko lasterketarik antolatuko Elgoibarren -orain arte zortzi alditan antolatu dute-. Mendaroarren, aldiz, izango dute urtea antxitxika agurtzeko aukera. Mendaroko Txirriindulari taldeak antolatuta, abenduaren 31n 17:00etan hasiko da Mendaroko San Silbestrea. Bost kilometroko ibilbidea izango du probak eta Goñati frontoitik irtengo dira. Egunean bertan ere eman ahal izango da izena, bi euroan.



LANA.....**Eskaerak**

Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Malgutasun osoa daukat.

☎ 697 961 386

Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko edo umeak eta adinekoak zaintzeko.

☎ 631 049 059

Lan egin nahiko nuke. Malgutasun osoa daukat ordutegian.

☎ 632 949 742

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Asteazken orduka. Asteburuetan ere bai.

☎ 612 493 242

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo interna.

☎ 632 729 261

Sukaldari laguntzaile lanetarako edo umeak zaintzeko prest nago.

☎ 602 047 812

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Ospitalean, interno moduan eta orduka lan egiteko prest.

☎ 632 841 284

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko.

☎ 699 535 728 (Enrike)

Adinekoak zainduko nituzke, etxe nahiz ospitalean. Formakuntza eta esperientzi handia dut.

☎ 602 161 496

Neska euskalduna eskaintzen da garbiketarako lan egin eta ume zein nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia daukat.

☎ 628 524 420

Neska euskalduna eskaintzen da adinekoak eta gaixoak zaintzeko.

☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke, arratsaldean. Elgoibarren zein Mendaron.

☎ 602 490 595

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Interna edo orduka. Asteburuetan ere bai.

☎ 632 953 013

Umeak zaintzeko edo garbiketarako lan egin egiteko prest nago.

☎ 633 401 678

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketarako lan egin egiteko prest nago. Orduka, gabez ere bai.

☎ 629 872 270

Eskaintzak

Lehen mailako Batxilergo teknologikoko klase partikularrik emango lituzkeen pertsona baten bila nabil.

☎ 637 413 731

Zerbitzaria behar da Mendaroko taberna batean asteburuetan lan egiteko.

☎ 678 396 522 (Maideri)

ETXEBIZITZAK.....

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 677 259 560

Etxea alokatzen dut San Roke kalean. Bi gela, bi komun, berogailu zentrala, komunetan lur radiala. Bizitzera sartzeko moduan.

☎ 660 042 159

Etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 602 490 595

BESTELAKOAK.....

Karakate elkarte mikologikoko akzioa saltzen dut.

☎ 679 843 332

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erretratua jarri gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiarri erretratua jarri gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Fundación Vasca Administradores para la Economía



**ROSA Ma
PINTADO**

Etxaldean Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net


Komunitateak salaketa jarri du nire kontra gastu komunei dagokien atal bat zor dudala argudiatuta. Ni ez nago konforme kopuru hori ordaintzearekin, baina hala ere, epaileak ordaintzera behartu nau eta gainera, epaiketa-gastuak ere nere gain hartu behar ditudala ebatzi du. Bere garaian esan zidaten ez nuela epaiketara abokatuak lagunduta joan beharrik, eta bakarrik joan nintzen. Komunitateak, baina, abokatu baten babesa eta aholkularitza izan ditu uneoro. Jakin nahiko nuke haien abokatuaren gastuak ordaindu behar ditudan orain.

Legeak libre uzten du epaiketara abokaturik edo prokuradorerik gabe agertzea. Hala ere, epaiketa-gastuak gaitzailak ordaindu beharko ditu, eta beraz, beste aldearen abokatu-gastuak eta peritu-gastuak ere bere egin beharko ditu.

AHOLKUA: Komunitatearen interes bat defenditzeko asmoz epaiketara jotzen denean beti da komenigarria profesional bat kontratatzea aholkatu gaitzan. Abokatu horren lana jabekide guztien artean ordaindu beharko dute. Norbanakook aukera daukagu aholkularitza-zerbitzurik ez kontratatzeko epaiketara gure interesen alde egitera goazenean, baina jakina, oso kontziente izan behar gara egoera jakin batzuetan haren premia izan dezakeela eta gainera epaiketa galduz gero gastu guztiak gure gain hartu beharko ditugula.



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Abenduaren 21ean urteko bat, **Unai!** Zorionak, bereziki, anaia Manex eta Xabaten partez. Txistorra pintxoarekin ospatuko dugu.



Zorionak, **June**, abenduaren 15ean 9 urte bete zenituelako. Patxo handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Maia**, urtarrilaren 3an 8 urte egingo dituzuelako. Sekulako festa antolatuko dugu! Muxu handi bat.



Zorionak, **Jon eta Nahia**, gaur 7 urte bete dituzuelako. Zuek zarete gure etxeko opari handienak. Muxu pila-pila denon partez.



Zorionak **Beñat eta Nere** etxeko bihurriei! Ondo ondo ospatu zuen 5. eta 3. urtebetetzeak. Muxu bat denon partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 744 112

Kalebarren plaza, 2
 20870 ELGOIBAR

Idama

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a
 Estetika-medikuntza tratamenduak
 Mikropigmentazioa
25 urte zuekin!

Antonio Arrilaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik) - Tel.: 943 744 026

SEGUR-arno

ASEGURUAK

PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA

Gabon zoriontsuak!

Deba kalea 2, behea - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Telf.: 943 74 80 13 - Fax: 943 74 81 35
segurarno@segurarno.com - www.segurarno.com

RP8 183/12

Uzuri

ELGOIBAR - DEBA
 optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

22 BARIXAKUA

13:00 Nazioarteko Xake Txapelketako sari banaketa. Udaletxeko pleno aretoan.

18:30 Biraka dantza taldearen kalejira, Maalako parkean hasita.

20:00 Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. San Bartolome parrokiari.

20:30 *Alicia en el país de las maravillas*. Aurrez grabatutako ballet emanaldia. Herriko Antzokian.

23:00 Kontzertua: Fractality. Sinuosek antolatuta.

23 ZAPATUA

18:00 Haur krosa, Mendaroko San Jose auzoan. Mendaroko Txirindulari Elkar-teak antolatuta.

22:00 Idi demak: I. Sigma Saria. Sig-mako probalekuan.

24 DOMEKA

11:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Kalegoen plazan hasita.

11:00 Elgoibarko Izarrak tonbola eta txosna jarriko ditu Kalegoen plazan.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

1. *Flourish for wind band* (Vaughan Williams).

2. *Lord Tullamore* (Carl Wittrock)

3. *La madrugá* (Abel Moreno)

4. *The magic of christmas* (J. Kraeydonck)

5. *White Christmas* (I. Berlin)

6. *Hator, hator* (T. Aragues)

16:30 Olentzero eta Mari Domingiren Kalejira, Mendaron. Garagartzatik abiatuko da.

18:30 Olentzero eta Mari Domingiren agurra Mendaroko udaletxean.

18:45 Udal Musika Bandaren kalejira eta San Lazaro egoitzara bisita. Gabon kanta eskainiko dituzte.

26 MARTITZENA

10:30 Eskola kiroleko izotz hockey txapelketa, Lekuederren.

22:00 Idi demak: IV. Idi gazte txapelketa. Sig-mako probalekuan.

27 EGUAZTENA

10:30 Eskola kiroleko izotz hockey txapelketa, Lekuederren.

17:00 Sun magoa, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Sarrerak udaletxean eta Morroskilon salgai, bost euroan.

28 EGUENA

11:00 eta 16:30 Gabonetako jolas parkea, Mendaron. Ikastolako jolastokian.

22:00 Elgoibarko Izarraren Eguberrietako bertso jaialdia. Kiroldegian.

29 BARIXAKUA

17:30 Ipuin musikatua: *Ezberdin bezain eder*. 2tik 6 urtera arteko umeentzako, Ludotekan. Sarrera doan (aforoa bete arte).

30 ZAPATUA

9:00 Gabon Zahar Feria.

23:30 Kontzertua, Erokomeri eta Fan&go taldeekin, Elgoibarko Gazte-txean.

31 DOMEKA

17:00 San Silvestre lasterketa, Mendaron.

2 MARTITZENA

11:00 eta 16:30 Gabonetako jolas parkea, Mendaron. Ikastolako jolastokian.

16:30 eta 18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizuna, Herriko Antzokian.

3 EGUAZTENA

17:30 Magia emanaldia. Iago magoa, Ludotekan. 6tik 12 urtera artekoentzat. Sarrera librea (aforoa bete arte).

5 BARIXAKUA

17:30 Jaiotza biziduna, Kalegoen plazan, Elgoibarko Katekesiak antolatuta.

18:00 Errege Magoen desfilea, Elgoibarko Katekesiak antolatuta. Santa Klara auzotik iritsiko dira Elgoibarrera.

6 ZAPATUA

11:30 Kristau ikasbidekoen meza berezia. San Bartolome parrokiari.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

GABON ZAHAR FERIA

8:30etik 14:30era

- Kalegoen plazan: barazki eta fruta erakusketa, lehiaketa eta salmenta.

- Elizpean: baserriko produktuen erakusketa eta salmenta. Gazta eta ezitia.

- Aita Agirre plazan: baserriko produktuen, lanabesen eta landareen erakusketa eta salmenta.

- Bolatokiko parkean, Lekuederren eta Kalebarren plazan hainbat abereren erakusketa.

- Pedro Migel Urruzuno kalean burdingaiak eta nekazaritza makineria.

9:00etatik 21:00etara

Jaiotza mekanikoa, parrokiako kaperan.

10:00etatik aurrera

Baltzola Anaiak trikitalarien kalejira.

10:00etatik 14:30era

Artalde Elgoibarko artisauen erakustaldia eta salmenta, Maalako parkean.

11:00etatik 14:30era

Falkoneria erakustaldia Aita Agirre plazan.

11:00etan

Elgoibar Ikastolak Eusko Label marka duten harakinen laguntzarekin (Armuet eta Ziarda), labeldun sahieski pintxoak eskainiko ditu, Kalebarren plazan.

11:30ean

Elgoibarko Kale Kantarien saioa, Kalebarren plazan hasita.

12:00etan

Urteko Gazta Onenaren XI. Txapelketa, Udaletxeko pleno aretoan, Kalamua elkar-teak antolatuta. Lehiaketak irauten duen bitartean pleno aretoan Mañukorta, Ziarda eta Meabebasterretxea bertsolariak.

13:30ean

Udaletxeko pleno aretoan fruta, barazki eta gazta lehiaketaren sari banaketa.

18:00etan

Kalegoen plazan, Plazara Dantzara erro-meria, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R D I A K

09:00 - 22:00
 22 Barixakua ETXEBERRIA
 23 Zapatua FERNANDEZ
 Goizez: GARITAONANDIA
 24 Domeka FERNANDEZ
 25 Astelehena BARRENETXEA
 26 Martitzena ORUESAGASTI
 27 Eguaztena BARRENETXEA
 28 Eguena IBAÑEZ
 29 Barixakua GARITAONANDIA
 30 Zapatua ETXEBERRIA
 31 Domeka GARITAONANDIA

GUARDIAK

20:00 - 22:00
 Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan izan ezik: BARRENETXEA (Elgoibar) Errosario, 26 - 943 741 277

22:00 - 09:00
 MANDIOLA (Eibar) San Agustin, 3 - 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

2018	1 Astelehena	2 Martitzena	3 Eguaztena	4 Eguena	5 Barixakua
Ordutegiak	Egunez:	Egunez:	Egunez:	Egunez:	Egunez:
Egunez: 9:00-20:00	GARITAONANDIA	YUDEGO	ORUESAGASTI	BARRENETXEA	IBAÑEZ
Gauetz: 20:00-22:00	Gauetz:	Gauetz:	Gauetz:	Gauetz:	Gauetz:
Larunbata: 9:00-14:00	GARITAONANDIA	YUDEGO	ETXEBERRIA	BARRENETXEA	ETXEBERRIA

Zinea (Herriko antzokian)

'La cabaña'

23 zapatua, 19:00 / 22:15

(VOS)

25 astelehena, 21:30



'Asesinato en el orient express'

29, barixakua, 21:30

30, zapatua, 19:00 / 22:15

1, astelehena, 21:30



fotoiosu_photography



losu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Mendia askatasuna da niretzat... baina euskara da gure territorio libre bakarra. Sarrik idatzi zuen, eta igandean BECen gogoratu nuen. Martxoan Uxurekin izan zuen solasaldi ederrean, Maialenek berak aipatu zuen Elgoibarren: Bertsolaritza izango da Euskal Herrian euskara hutsean egiten den jardun gutxienetako bat. Euskara hutsean egiten den bakarra, eta euskararen zazpi lurraldeetan egiten den bakarra. BECekoa gaztelaniaz kontatu behar izan nuen igandean, lanean, eta sentitu nuen, gaztelaniak ez daukala hitzik bertsolaritza azaltzeko. Baina ederra izan zen: ikustea oholta gainetik botatakoa nola bizi eta interpretatu zuten 16.600 lagunek. Bertsoak zer sortu eta zer eragin zuen haiengan. Irakurri nion bati, bertsolaritza ulertzeagatik bakarrik merezi duela euskara jakitea. Euskara bizirik dagoela erakutsi zuen BECek igandean, eta euskarak komunikatu egiten duela: sentimenduak adierazi, eztabaidatu, haserrarazi, barre eta negar eragin. Zenbat ikasgai igandeko finalean: 8 finalista eta emakume bakarra, baina feminismoa eta berdintasuna oholta gainean; futbol zelaietako lehiarik ez, lagun arteko errespetua eta elkarrekiko miresmena. Bertso adituek ere maisuki aukeratu zituzten hitzak iruzkinak egiteko, eta hutsen gainean ere baikor beti, bertsolariaren ahalegina, ibilbidea eta ezaugarriak gorai patzen. Liluragarria. Euskara ederra, joria, ona eta egokia, aberatsa, jasoa eta bizia, ulergarria eta eguneratua. Eta edozein kazetari edo politikari lotsarazteko moduko jakituria. Hango eta hemengo, atzoko eta gaurko kontuen inguruan, hitzak dantzazten. Euskara plazara ateratzen dute bertsolariek. Eta guk ogitartekoa jan bitartean, bihurtu dira transexual, lehendakari, bake artisau, drogazale, prostituta eta etorkin. Liluragarria. Txapelak merezi du noski, eta astelehenean egunkarien azaletan ziren, baina gaur berriz itzuli dira azken orrietara. Eta bai, futbolak eta reggetoiak 14.600 zale baino gehiago dauzkate gure Euskal Herri maite honetan ere. Horixe da errealitatea. Bertsolaritzari ere inork ez baitzion esan euskaldun izatea zein nekeza dan. Baina gora bertsolaritza, eta gora euskara. Erkin eta jarrai!

“Horixe da errealitatea. Bertsolaritzari ere inork ez baitzion esan euskalduna izatea zein nekeza dan”




I. URTEURRENA
Bitoriano Loiola Iriondo
"Ospas"

2016ko abenduaren 28an hil zen, 90 urte zituela.
Urteurren meza, abenduaren 31n, domekan, izango da,
12:30ean Mendaroko Garagartzako elizan.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.


***lazko azken Gabonak,
poztuaz trikitiz aitonak,
betiko gogoan haren doinuen sonak.***

Zeureak



Eduardo Bereciartua Arrillaga

2017ko abenduaren 15ean hil zen, 71 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Emilia Herrero Fernandez

2017ko abenduaren 17an hil zen, 70 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA
Ladislao Irureta Gabilondo

2016ko abenduaren 25ean hil zen, 81 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
abenduaren 23an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***





San Bartolome 22 - 20870 Elgoibar
Ola Kalea 10, behea - 20160 Lasarte-Oria
San Frantzisko, 39 Tolosa
Tel.: 943 366 377

RPS 233/13

ALDAZ HORTZ klinikako lantaldeak
gabon zoriontsuak opa dizkizue.

